

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-07-27  
EGUBAKOITZA  
519. ZENBAKIA  
12. URTEA  
DOANEKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

"Deskargako bidesaria bankuek behartu dute"



Larraitz Ugarte | Bide azpiegituretako foru diputatua | 8

Bi langile larri Fagorren, leherketa baten

Disolbatzaileak su hartuta gertatu zen istripua, atzo | 4

Aurten 150 urte bete dira San Martin Agirre kanonizatu zutela | 9



Munduko Triatloi Txapelketa jokoan etzi, Gasteizen | 20



Aretxabaletako Andramaixak, musikaz eta antzerkiz beteta | 15



Abiadura Handiko Trenak Arrasateko lurak zeharkatzeko izango duen ibilbidea. | JULIO CALLEJA



Aramaioko biaduktua. | ANDER MONEDERO



Aramaioko zubia, azpitik. | A.M.



Arrasaten, Y-ren lotunea. | A.M.



Bergaran zutabeak eraikitzen. | A.M.



Eskoriatzan zubia eraikitzen. | A.M.

# AHT bistan da

Gure ibarra zeharkatuko duen Abiadura Handiko Trenaren bidearen obrak oso aurreratuta daude | 2

## SINADURAK



'Totum revolutum' | 6

ANDONI URZELAI

16 | Ispiluren bi aldeak  
TXOMIN AZPITARTE

Herritar berriak | 17

ALAITZ JAUREGI

32 | Oporretako itzulera  
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |  
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20 |  
KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 27 |  
TELEBISTA 28 | ESKELAK 28 |  
EZKONTZAK 29 | NON-ZER 30



Lehendakaria eta ordezkariak. | A.Z.

Lopez lehendakariak eredugarritzat jodu Soraluze | 5

## IRAILAREN 3RA ARTE, IRAKURLE!

Gaur, egubakoitza, kaleratu dugun zenbakiaren ondoren, hurrengo irailaren 3an argitaratuko dugu. Ondo ibili!



INTERSPORT®

LORAMENDI

deskontuak

50%

Arrasaten eta Zumarragan

# Bailarako AHTren obra zibila ia bukatuta dago

- ▶ Angiozarko zatiaren proiektua laster onartuko dute
- ▶ Obra zibilaren ostean, oraindik obra handia faltako da
- ▶ 'Euskal Y'-a lotura barik geratzeko arriskua dago



Induspeko tunel inguruan jo eta su dabilta langileak. | ANDER MONEDERO-ARRITXU BARRUSO

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Irudiek ez dute zalantzarako lekuri uzten: 2010eko geldialdiari buelta hartuta, Abiadura Handiko Trena Debagoieneko mendi eta bailaretatik zehar mar-txa bizian saretzen doa. Nahiz eta Espainia azken hamarkadeta-ko krisi larriean egon, eta nahiz eta gizarte arloan murrizketa izugarriak egin, AHTrako dirua ipintzen jarraitzen dute erakundeek, bai Espainiako Sustapen Ministerioak, bai Eusko Jaurlaritzak.

Hala, Espainiako Gobernuak 67.000 euroko murrizketak agindu ditu orain arte –osasunean, 7.000 milioi; hezkuntzan, 3.000; errenta aitortpenean eta beste murrizketa batzuetan, 27.300; eta BEZa igoaz, funtzionarioen soldata murriztuaz eta langabezia subsidioa txikituz, beste 30.000–, baina, ekainean, Sustapen Ministerioak Europako Inbertsio Bankuari 1.000 milioiko mailegua, 30 urtetara, eskatu zion abiadura handiko Euskadiko trena egiteko. Mailegu horren erdia dagoeneko jaso du ADIFek, Espainian abiadura handiko tren-sarea eraikitzen dabilen enpresak. Europako Inbertsio Bankuaren mailegu horren berri zabaldu eta bi egunera, Lopez lehendakariak jakinarazi zuen erakunde berak 460 milioi utzi zizkiola Eusko Jaurlaritzari.

Horrez gain, Espainiako Estatu Aurrekontu Orokorretan 314 milioiko partida ematen zaio AHTko lanei.

Eusko Jaurlaritzak ere, bere kabuz, arlo sozialetik murriztu –2010ean, 270 milioi kendu zituen Osakidetzarako aurrekontutik– eta AHTn inbertitu du –urte berean, 300 milioi.

Administrazioek presa handia dute AHT bukatzeko, 2016 urterako, eurek ipinitako epearen arabera. Eta azkenaldiko diru-injekzioek eta murrizketek azaltzen dute 2010eko iraila ezker obrak zenbat aurreratu dituzten. Debagoienean ere bai: begi bistan dago AHTren oinarria ia bukatuta dagoela.

AHT Gelditu! Elkarlaneko kide Mila Elortza angiozartarren esanetan, "atzeraldia zeukan Gipuzkoako tartea, eta PSOE Eusko Jaurlaritzan dagoenetik, joan diren bost urteetan ez dute egin hilabeteotan egiten ari dira".

Joan den astelehenean bertan, Hernialde-Zizurkil tramuko obrak hasteko ekitaldia egin zuen Patxi Lopezek, eta han esan zuen Gipuzkoako tramu guztiak, 17ak, obratan edo adjudikatuta daudela; orain hiru urte, tramu bakarra zegoen.

**Gipuzkoan, 2016rako martxan** Obren geldialdi handiena 2010eko uztailan izan zen, eta diru faltak eragin zuen. Debagoienean, tramu batzuk Sustapen Ministerioak egiten ditu –oro har, Arrasate, Aramaio eta Eskoriatzakoak– eta beste batzuk, Eusko Jaurlaritzak –Antzuola eta Bergarakoak–, eta Sustapenaren igarri zuten gehien atzerapena; horregatik, orain Lopezek Espainiako Gobernuari eskatu dio bere tartea lehenbailehen egin ditzala. Mila Elortzaren esanetan, Jaurlaritzak "Gipuzkoako tartea, agindu bezala, 2016rako martxan jarri nahi du, baina ikusten du ez dagoela beste konexiorik".

Hala, Bergaran hainbat tramu esleitu dituzte: Bergara-Bergara izenekoa da Angiozartik pasatzen



Murutik oso ondo ikusten dira trazatua eta Y-aren lotunea. | JULIO CALLEJA



Antzuolako tramuaren ikuspegi bat. | ANDER MONEDERO



Angiozarren, bi baserriren artean eraikiko dute zubi-bidea. | ANDER MONEDERO

dena. Aurten hasi dira, baina "doazen erritmoan, urte bukararako amaituko dute", uste du Mila Elortzak.

Beste tramu baten proiektua egin gabe dago, baina edozein momentutan onartuko den beldur daude kaltetuak; izan ere, sarritan, udako opor sasoiari onartu izan dira. Angiozar-Arrasate eta Angiozar-Elorrio tramu bikoitza da, AHTko obra konplexuenetarikoa bat, *Euskal Y*-aren muina delako. Besteak beste, Angiozarren lau tunel aurreikusten dira, bi tramu bakoitzerako. Bergarako Udalak, kaltetuek... bide guztietatik eskatu dute proiektuaren gaineko informazioa, baina ez dute lortu. "Eta horrela, ezinezkoa da emendakinak aurkeztea. Txikizioa begi bistakoa da, baina bertako biztanleondako ahalik eta kalte txikiena egin diezaguten nahi dugu".

## Inoiz baino diru gehiago

Antzuolako tramua ere Eusko Jaurlaritzak eginen. Bergara-Antzuola zatia 4.300 metrokoa da, eta gehiena (3.706 metro) tunela izango da. Bada, uztailaren 12an kalatu zuen ADIFek tunel hori; orain, 2 metro errebatu beharko dute; gero, indartu. Baina beste tramu batek ere ukitzen du Antzuola: Ezkio-Itsasoraino doana, Urretxu eta Zumarraga zeharkatuta. Bestalde, Deskarga erreka gainean 495 metroko biaduktua eraikitzen dabilta.

AHT Gelditu! Elkarlaneko Hilario Manzanedok ezagutzen du Antzuolako tartea, eta, obrak arriskutsuak direla eta ingurumen aldetik kalte handiak egiten dabilzala salatzeaz gain, alferrik galtzen ari den dirutzaz ohartarazten du: "Gipuzkoan sekulako martxan dabilta eta aurten inoiz baino diru gehiago ipini dute obretarako. Baina oraingo lanak dira soilik plataforma, obra zibila egiteko; oraindik errailak, trabesak, segurtasun-hesiak, elektrizitate sistemak, katenaria... beste hori guztia geratuko litza-teke egiteko".



## ESANAK

**"Aurreikuspena da 2017rako AHT bukatuta izatea"**

EUROPAKO INBERTSIO BANKUA

**"Angiozarko proiektua udan onartuko duten beldur gara"**

MILA ELORTZA | KALTETUA

**"Diruz justu ibili arren, kalteak konponduko dituztela diote"**

JUAN CARLOS BELOKI | KALTETUA



Aramaion, mendi-ebaketa. | ANDER MONEDERO

tunela, 2.200 metro baino luzeagoa; eta, gero, Maringo biaduktua". Obrak martxa bizian doazenez, Belokiren ustea da urte bukararako obra zibila amaituta izango dutela.

ADIFekin hartu-emana dute kaltetuek. Belokik azpimarratzen duenez, kalteak konpontzen doaz, obrak egin ahala: "Zarimutzen egin zuten hondakindegia itxi eta konpondu dute. Onartu digute diruz larri dabiltzala, baina kalteak konponduko dituztela agindu digute".

Murrizketak, Eskoriatzan, orain bi urte igarri ziren, baina beste leku batzuetan, orain dabil-tza igartzten: Belokik kontatzen duenez, "Gasteizera doan tramuan (Legutio-Eskoriatza), Condesara doan 4,8 kilometroko tunela, erditik hona, erdi geldirik dago. Hori bukatzeko asko falta da".

**Kalte-ordainen eske**

Arrasaten eta Aramaion ere Espainiako Gobernuak ibili da, eta han ere obra zibila bukatuta edo ia bukatuta dago. Arrasateren kasuan, Murutik oso ondo ikusten da trenaren plataforma, pilare erraldoien gainean, eta paisaia zelan aldatu duen.

Aramaioiko udal ordezkariak ere, obra zibila "nahiko bukatuta" ikusten dute, eta beste arduratza batzuk dituzte orain: "herriarekin zorretan" utzi dituzten konponketa guztiak egin ditzaten, bai obrek eurek egindakoak, bai Aramaioiko errepide nagusia 13 hilabetearen itxita egotearen ondorioz sortutako kalteak ere.

**Dirulaguntza "barregarriak"**

Inbertitu den dirutza guztia "zuloa botatzea" dela salatzen dute AHTren aurkakoei, eta, euren

iritziz, "gerta daiteke" AHT bukatu barik geratzea, izan ere, "barregarriak" dira Europatik datozen dirulaguntzak: "Behar duten diruaren %10a ere ez da", dio Mila Elortzak.

Eta AHT bukatzen bada ere, Gasteiz, Bilbo eta Donostia elkarrekin lotzeko baina gehiagorako balioko ote duen zalantzan dago. Izan ere, Irunera eta Donostia-rako sarrera-tramuen eta Astigarratik mugarainoko tramuen proiektuak "azterketa informatibo osagarri" fasean ditu Sustapenak; bestalde, Espainiatik, Valladolideraino ailegatzen da AHT, eta Gasteiz Burgosekin lotzeko zatiaren proiektua egin gabe dago; eta Frantzian, aurreko gobernuak onartu zuen Borede-Biriatu arteko trazatua, baina Hollanderen gobernuak Frantziako AHTren hainbat proiektu izoztu egin ditu. Beraz, litekeena da *Euskal Y*-ak, gehie-nez ere, tramu luzeenean 100 kilometro egiteko balio izateak.

**Induspeko tunela, bukatzeko**

Eskoriatzako obrak Sustapen Ministerioa dabil egiten, eta badira lau urte lehenengo makinak sartu zirela. 2010eko uztailan bertan behera utzi zituzten lan gehienak, eta 2011ko uztailan eutsi zieten berriz. Orain, Onbide elkarteko kide eta Mazmelako auzotar Juan Carlos Belokiren hitzetan, "ia dena eginda dute, eta orain bi lan garrantzitsu dituzte bukatzeko: Induspeko

## DATUA

**500**

MILIOI EURO, AHT-RAKO

Europako Inbertsio Bankuak 500 milioi eman zizkion ADIFI. Handik bi egunera, Lopezek 460 milioiko maileguaren berri eman zuen.

## ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENA paperean argitaratu genuen betaurreko eta lentilla graduatuek %21eko BEZa izango zutela. Datu hori okerra da: %8tik %10era pasako da horien BEZa. Barkamena eskatzen diegu gure irakurleei.

# Olinpiar Jokoak

Zuzeneko telebista saioa  
**12:00etan**

Prentsaren begiratua • Erreportajeak  
Elkarrizketak • Konexioak Londresetik  
Umorea • Musika

Uztailaren 27tik  
abuztuaren 12ra

BERRIaren eskutik

● [www.berria.info](http://www.berria.info)  
webgune berezia

● Egunero 12 orriko  
gehigarria BERRIAN



**Eta zu?**  
Egon al zara inoiz Olinpiar Jokoetan?  
Zatoz BERRIara,  
eta konta iezaiguzu zuzenean



Aukera ezazu,  
BIZI GUSKARIZ



## Irakurleen oporretako kronikak 'Goiena.net'-en

M.B. | ARRASATE

Abuztua gain-gainean dugu, eta kontuan izanik oporretarako hilabetea izango dela askorentzat, beste atal bat sortuko dugu *Goiena.net* atarian, irakurleen kronikei lekua egiteko. Irakurlea dagoen lekuan egonda, haren nondik norakoen berri izan nahiko genuke: bidaiaren kronika, gomendio bat, argazki kuriosoren bat, anekdotak, bizipenak... norberak eman diezaiola gura duen forma eta neurria ekarpenari.

Kanpora joateko aprobeztatuko dutenen kronikak nahiz bertatik bertara ibiliko diren irakurleenak jaso nahi ditugu, eta, nola ez, lan egitea egokitu zaien ere zabalik izango dute gure leihoa; gustura irakurri eta ikusiko ditugu guztiak.

Bidali ekarpena abuztuan barrena [berriak@goiena.com](mailto:berriak@goiena.com) helbidera, eta *Goiena.net*-en sartuko dugu.

Gogoratu, baita ere, beste urtebetez abian dela Udako Argazkien VIII. Goieta Lehiaketa. Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du, adin mugarik gabe, eta argazkiak -bost gehienez- irailaren 14ra arte bidal daitezke [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera. Bost sari banatuko dira; lehenari, Canon EOS 1100 D reflex argazki kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa.

## Tokikomek bi mintegi prestatu ditu irailerako, eta izena eman daiteke

Zehazki, bi gai hauek landuko dira: *Tokikom plataforma digital komuna* eta *Finantzazioa*. Izena emateko azken eguna irailaren 18a da. Informazio gehiago eta izen-ematea: <https://docs.google.com/spreadsheet/viewform?formkey=y=dGZrbDdhMkRqTmxRZzJXWXVSakVCMIE6MA>.

## Euskal Herriko historialarien biltzarra irailean Arrasaten

Albako dukearen tropek Nafarroa konkistatu zutenetik 500 urte bete dira, eta gertakari horrek izan zituen ondorioak aztertzeke, Nabarralde Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra antolatu du. Lau saio izango ditu eta lehenengoa Arrasaten izango da irailaren 7an: *Hizkuntzaren galera eta eremu murrizketa* gaia izango da ardatza. Izenematea zabalik dago 948 21 10 57 zenbakian.

# Bi langile larri, atzo, Fagor Arrasaten izandako istripuan

Leherketa izan zen, disolbatzaileak su hartu ostean; langileak Gurutzetako Ospitalera eraman zituzten



Fagor Arrasateko zenbait lankide suhiltzaileen lanari begira. | JULEN IRIONDO

E.A./M.B. | ARRASATE

Bi lagun larri zauritu ziren, atzo, Fagor Arrasatek Mondragoeko Nafarroa etorbidean duen lantegian gertatutako leherketan. 26 eta 33 urteko bi gizonen dira zauritutakoak. Ospitaleko larrialdi zerbitzuek emandako informazioaren arabera, batek bigarren eta hirugarren graduko erredurak ditu gorputz osoan. Besteak bigarren eta hirugarren graduko erredurak aurpegian eta eskuetan. Bien ala bien pronostikoa erreserbatua zen atzo eguerdian eta Gurutzetako Ospitaleko Erreduren Unitatera eraman zituzten.

12:15 inguruan gertatu zen istripua, eta, Arrasateko Udaltzaingotik adierazi zuten, disolbatzailearekin zebiltzan bi langileak fosa baten barruan, eta, antza denez, disolbatzaileak su hartu zien eta, horren ondorioz, leherketa gertatu zen.

### Lankideek eroan zuten bat

Suhiltzaileak berehala bertaratu ziren leherketa izandako lekura; izan ere, ezta daren ostean, su piztu zen eta kea irteten zen lantegitik. Gainera, Herrizaingo Sailak aditzera emandakoaren arabera, zauritutako bat ateratzeko suhiltzaileen laguntza behar izan zuten. Bestea, berriz, sutan ikusi, eta lankideek eurek eroan zuten Debagoieneko Ospitalera, parean dagoelako.

# Debagoieneko udalak ez datoz bat industrialdeen baturarekin

Ibarreko udalek diote Debabarreneko Industrialdeak Debagoienekoa absorbitzea "oso kaltegarria" dela hemengo industria garapenerako

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Debagoieneko Industrialdea SAKo kide diren bost udalek -Arrasate, Oñati, Bergara, Eskoriatza eta Aretxabaleta- ez dute onartzen, "inolaz ere", Eusko Jaurlaritzak Sprilurren bitartez martxan jarri duen industrialdeen fusio programa.

Salatu dute ez dietela informaziorik eman, ez operazio horren helburu zehatzei buruz, ezta etorkizunean gauzatzeko proiektuen gainean ere. Bategite horrek Debagoieneko industria garapena "nabarmen kaltetuko" du, euren esanetan. Gainera, diote "inposatu" egin dietela programa hori eta "gure eskualdeko industrialdeen etorkizunean izugarritzko kalteak" sor ditzakeela. Bestalde, "PSE-EEren interes politiko eta elektoralek bultzatutako operazioa dela esatera ere ausartu" daitezkeela gehitu dute. Era berean, "hauteskunde markoan" ulertzen dute bategite prozesua.

**Eskualde perspektiba baztertu** Hasierako helburuak baztertu eta "partidu interesak" defendatu nahi izatea egotzi diete bultzatzaileei: "Sprilur sozietatea eskualdeko egitura industrial

berriak sustatzeko sortu zen. Horretarako, eskualdeko udalok, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Sprilurrek sozietate merkantila eratu genuen. Egun, baina, Sprilurko ordezkariek bestelako helburu batzuk bultzatu nahian dabilta.

Udalon ustez, "eskualde perspektiba baztertu eta interes bereziko jo dituzten egitasmo jakin batzuk bultzatu nahi dituzte, eta, horretarako, gure sozietatearen kapitala baliatu nahi dute". Horretarako, absortzio bidezko fusioa erabili nahi dutela diote, Debabarreneko Industrialdea SAK Debagoienekoa absorbituz, "nahiz eta gurea handiagoa izan".

Azaldu dutenez, Debagoieneko udalek martxoan jakin zuten fusio hori egiteko asmoa zegoela, eta salatu dute Sprilurrek ez dela oraindik operazioaren helburu zehatzei buruzko informaziorik eman; ezta etorkizunean heldu beharreko proiektuen gainekorik ere, sarri eskatu arren.

### Gastuen aurrezpena "aitzakia"

Operazio hori gastuen aurrezpena "aitzakia hartuta" aurkeztu dutela diote, baina ez dela hori euren asmo bakarra: "Sozietate

publikoetan, oro har, kostuak %20 murriztu nahi direla esanez aurkeztu dute operazio hau. Baina Debagoieneko Industrialdean langile gutxi dago eta, gainera, kudeaketa Debabarreneko Industrialdea sozietatearekin partekatzen du. Horren adibide da geren-



Labegaraietako industrialdea. | M.B.

te bakarra dagoela bi industrialdeetarako".

Horrekin batera, kritikatu dute Sprilurrek Gipuzkoan "industrialde berriak sortzeko asmoa" duela, baina euren ustez, "ez dira gauza berriak sortzeko garaiak, eraikita ditugun industrialdeak egungo egoerara egokitzeak baizik. Debagoienean, baditugun enpresak kokatzeko egokituta dauden hainbat bulego eta partzela, egun hutsik daudenak: Labegaraieta, Bergaran; Markulete, Arrasaten; eta Torrebaso, Eskoriatzan".

Horren haritik, krisira eraman gaituzten errezetak errepikatu barik, estrategia berriak topatzeko beharrean gaudela gaineratu, eta salatu dute "guztiz bestela" jokatu dutela Jaurlaritzako arduradun politikoei: "Behar-beharrezkoa da ditugun industrialdeen bilakaera zein izan den aztertzea eta diagnostiko txukuna egitea. Hartara, benetan dauden beharren jabe izango gara".

### "Duten %51z baliatu dira"

Erabakia "kontsentsurako inolako saiakerarik egin gabe" hartu dela salatu dute, eta "horretarako, sozietatean duten %51z baliatu" direla. Era berean, ondorioak "oso kaltegarriak" izango direla uste dute: "Nahiz eta operazioak koiunturala dirudien, ondorioak latzak izan daitezke sozietatearentzat. Eskualdeko perspektiba galtzeak norabiderik gabe utzi dezake sozietate berria. Eta hori eskualdeko ekimen publikoko industrialdeen amaiera izan daiteke".



Lopez –lehendakaria–, Garitano –diputatu nagusia– eta Unda –Industria sailburua–, enpresetako ordezkariekin. | AKETZ ZUBIA

## Eredugarritzat jo du Lopezek Soraluze enpresaren Hiperion proiektua

Lehendakaria eta diputatu nagusia Osintxuko lantegian izan dira asteon

T.M./M.B. | ARRASATE

Bergarako Soraluze enpresak, beste bost euskal enpresarekin batera, garatu duen Hiperion proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten eguaztenez Soraluze Osintxuko lantegian eta aurkezpen ekitaldian Patxi Lopez lehendakaria eta Martin Garitano ahaldun nagusia izan ziren, besteak beste.

2009an abiarazi zuten proiektua Soraluze, Etxetar, Goratu, Danobat eta Zayer enpresek eta zientzia eta teknologiaren sareko hiru agentek. Haren helburua da makina-erremintaren euskal par-

tzuergoa pieza handientzat dotasunezko makinaren munduko lehen erosketa aukera izatea, eta era berean, EAE hazkunde iraunkorreko lurralde gisa sustatzea. Lortutako emaitzei dagokienez, Hiperion esker lau patente berri eta patentei buruzko zazpi bideragarritasun ikerketa lortu dira.

### Elkarlanaren fruitu

Jaurilaritzaren Etorgai ekimenak diruz lagundutako proiektua izan da, eta Lopezek eredugarritzat jo eta gainerako sektoreentzat adibide gisa jarri zuen: "Hiperion

proiektua ekonomiaren beste alorretan egin behar dugunaren adibide aproposa da", esan zuen, eta gaineratu zuen: "Halako proiektuak dira beharrezkoak krisiari aurre egiteko".

Guztira, 11,5 milioi euroko aurrekontua izan du Hiperionek, eta horietatik 8,8 ikerkuntza eta garapenean inbertitu dira. I+G alorrean egin du bere ekarpena Jaurilaritzak 3,1 milioiko laguntza emanaz. Enpresek 5,7 milioi euro erabili dituzte. Horren harira, esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu zuen Lopezek.

## Josu Uribetxeberria presoaren osasunak okerrera egin du

M.B. | ARRASATE

Josu Uribetxeberria Arrasateko preso Leongo ospitalean dago. Aurreko egubakoitzean eraman zuten Mansilla kartzelatik hara, biriketako nodulu bat zela-eta, eta biharamunean beste nodulu bat izan zitekeena aurkitu zioten buruan. Dena den, asteon zenbait proba egin dizkiote eta haren anaia Jabik esandakoaren arabera, "buruan metastasia izan dezake, edo infekzio bat. Bieta-ko edozein izan daiteke, eta argitzeko, erresonantzia egitea ezinbestekoa da". Orain, horren zain daude. Biriketako noduluei dagokienez, berriz, horiek ere ez dago argi zer diren: "Zerbait duela ikusten da, baina fistula bat izan daitekeela ere esan dute. Dena den, haren aurrekariak kontuan hartuta...". Izan ere, 2005ean ezkerreko giltzurrunean

minbizia diagnostikatu zioten eta kendu egin zioten.

### Gaur manifestazioa

Haren senitartekoekin batera, Arrasateko Herrirak, Arrasateko Udal Gobernu taldeak eta Etxeratek egoera salatu eta haren etxeratzea aldarrikatu dute asteon egindako elkarretaratze eta bestelako agerraldietan. "Minbizia duen pertsona bat espetxean mantentzea inolako gizatasunik ez duen erabakia da, giza eskubide guztien aurkakoa. Finean, horretan oinarritzen da Espainiako espetxe politikak, giza eskubideen ukazioan", esan dute. Horrekin batera, gaur 19:30ean Arrasaten egingo den manifestaziora joateko dei ere egin dute Uribetxeberria eta gaixo dauden beste 13 presoaren eskubideen alde.



Arrasaten bilkura egin zuten martitzenean. | MAIALEN REGUEIRO

## Ingeniari teknikoak graduatu bihurtzeko aukera MUREkin

Sei egokitzapen ikastaro abiaraziko dituzte

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak ingeniari teknikoentzako sei egokitzapen-ikastaro jarriko ditu abian datozen ikasturtean, Gipuzkoako Peritu eta Ingeniari Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialaren laguntzarekin.

ANECaK (Kalitatea eta Egiarritapena Ebaluatzeko Agentzia Nazionala) ikastaro horiek emateko baimena eman du eta profesional aktiboei zuzenduta daude. Gaztelaniaz emango dira eskolak, formatu erdi-presenzialean eta linea bidez.

Ikastaro horiei esker, ingeniari teknikoak bitarteko karrera zahar bateko titulazioa izatetik Europako graduatua eskuratzera pasatuko dira urtebeteko ikasketen ondoren, Mondragon Unibertsitatetik aurreratu dutenez.

### Izen-ematea zabalik

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943 79 47 00 telefono zenbakira edo e-maila bidali [muplus@mondragon.edu](mailto:muplus@mondragon.edu) helbidera.

## Udaletxean harrera egin diote Laarusi

Oporrak Bakean programaren barruan Arrasatera etorritako ume saharretako bat da Laarusi, eta asteon egin diote harrera. Nahiza ere etorri da, baina ez zen harreraren egon, gaixo dagoelako. Euskal Herrira lau haur etorri dira aurretik.



GOIENA

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

## JUAN ZELAIA XII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 €**

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

**Irailaren 30a arte**

Tel.: 948 32 65 35  
soltxate@pamiela.com  
Arauk: www.pamiela.com



2012



SAN JUAN DE DIOS OSPITALE PSIKIATRIKOA

PSIKIATRIKOA, FAMILIA-TERAPIA ETA TERAPIA PSIKOLOGIKOKO KANPO-KONTSULTAK

HITZORDUAK

943 79 39 00

Gesalibar Auzoa 14  
20500 - ARRASATE

[www.hsjd.es](http://www.hsjd.es)  
[mondragon.admision@hsjd.es](mailto:mondragon.admision@hsjd.es)



# Ikerne Altube • Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako arduraduna

## "Kalitate sistema honek hobekuntzak ekarri dizkigu"



**Arrikruz-Oñatiko kobak dira estatu mailan Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa diploma duten koba bakarrak. Horixe adierazi digu Ikerne Altube OGTA-ko arduradunak. Gaineratu digu sorreratik egin zutela euren kalitatearen aldeko apustua eta horregatik aritu direla diploma lortzeko lanean. Programaren helburua zerbitzuen kudeaketa hobetzea da.**

### Zeintzuk izan ziren programa honetan parte hartzeko arrazoiak?

Bai zerbitzu mailan, eta bai industria mailan, kalitateak gero eta pisu handiagoa du eta beharrezko ikusi genuen kalitate programan parte hartzea.

### Ze abantaila ekarri dizkizue diplomak?

Nik uste dut programak eskaini digula lan egiteko era bat, antolatutako era bat. Izan ere, metodologia bat da eta arlo ezberdinetan lan egiteko gidaritza eskaintzen du. Hala, adibidez, enpresara langile berriak sartzen direnean, gauzak asko errazten ditu: denok sistema bera jarraitzen dugu eta metodologia beraren barnean lan egiten dugu.

### Ze hobekuntza izan dira barne funtzionamenduan, kudeaketan eta azpiegitura gaitetan?

Arrikruz nahiko berria da, eta, beraz, nahiko hasieratik heldu genion kalitatearen konpromisoari. Baina sistema honek hobekuntzak ekarri dizkigu: materiala ordenatzeko orduan, garbitasuna eramateko



Ikerne Altube, OGTA-ko arduraduna, Arrikruz-Oñatiko kobetako harrera-puntuan.

orduan, inbentarioak egiteko orduan, bezeroari harrera nola egin... Lehen esan bezala, lana antolatzeko orduan izan du garrantzia.

### Eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenuke?

Komunikazioa eta jarrera. Ez sistema bera, baizik kontziente izatea.

Bezeroa entzuteko aktibatuta zaudete, beste txip bat duzu.

### Bezeroaren poztasun mailan, bestalde, ze hobekuntzak eragin dute zuzenean?

Guk ezin dugu baloratu gure bezeroek nabaritu ote duten kobetan programa ezarri dugunik; izan ere, gure bezeroak ez dira horrenbeste

errepikatzen. Hala ere, jasotzen dugu euren iritzia inkesten bidez, esaterako. Eta are gehiago, programa honek eman digu sentsibilitate bat informazio hori jasotzeko nahia izateko, alertan egoteko, nolabait. Hain zuzen, modu horretan, bisitariak egiten dituzten komentarioetatik lortzen da askotan informazio gehiago.

### Zer esango zenioke sektore profesionalari Kalitate Turistikoaren Konpromisoa bereizgarria ezartzeko?

Irudi bat dela. Konpromiso edo kalitatezko irudi bat eta zure zerbitzua horrekin lotzea lortzen duzuna. Horregatik, animatuko nituzke ezartzera. Bestalde, norberaren negozioa hobertzeko aldatzeko gizona sortzen duela adieraziko nieke. Izan ere, izaten dira ahultasunak, eta horietaz konturatu eta hobetzera bideratzen du.

### Arrikruz lehiakorrago egiten du diplomak?

Estatu mailan, Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa dugun koba bakarrak gara. Beraz, esan daiteke horrek bereizten gaituela.

### Eskualdeko teknikarien aldetik jasotako laguntza positiboki baloratuko zenuke?

Zorionak emango nizkieke; izan ere, izugarriko lana egin dute. Beti daude prest aholkuak emateko, zalantzak argitzeko, erantzuteko eta jarraipena egiteko. Beti daude alboan.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetour-ek, enpresariei behar dituzten tresnak eta laguntzak ematen dizkiete euren erakundeak lehiakorragoak izan daitezen ondorengo programei esker:

- **Jardunbide egokirako programak:** helburua da enpresarien "profesionalizazioa" hobetzea eta helmuga konzientzia sortzea. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa diploma duten 507 establezimendu daude.
- **Kalitate Turistikoaren Q programa:** bezeroaren itxaropenak betetzea eta gogobetetzea bermatzen dituen programa da. Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria.
- **Bikaintasun ereduaren programa:** erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

**Ezarri Kalitate Turistikoarekin Konpromiso bereizgarria zure establezimenduan!**

**94 607 75 94**

**[www.basquetour.net](http://www.basquetour.net)  
[info@basquetour.net](mailto:info@basquetour.net)**

**Larraitz Ugarte** | Bide Azpiegituretako foru diputatua

# "Errepide asko eraiki da, hausnartutako irizpide barik, eta horiek ordaindu egin behar dira orain"

- Foru Aldundiak proposatu du, gehienez ere, hilean 25 euro ordaintzea autobideak
- "Ez dugu ordainleku berririk jarriko ez Etxegaraten, ez Andoainen, baina bai Deskargan"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Gipuzkoako errepideez eta haien finantzazioaz dihardu Larraitz Ugartek, Bide Azpiegituretako diputatua, baina baita bidegorriez eta Gipuzkoako Foru Gobernuaren urtebeteko jardunaz ere; hiri hondakinez, batik bat.

**Gipuzkoarrok ordainpeko autobideetan hileroko 25 euro baino gehiago ordain ez dezagun proposamena berretsi du Aldundiak.**

Gipuzkoan bi errepide sare nagusi daude: batetik, AP-1ek eta AP-8k osatutakoa, ordainpekoa; eta, bestetik, N-1, A-15 eta N-121, ez direnak ordainpekoak. Eta hori ez da hausnarketa politiko baten ondorio, baizik eta bere sasoiaren hala erabaki zutelako, ezelako irizpiderik barik. Horrek esan nahi du AP1 eta AP8 egunero erabili behar dugunok dirutza ordaindu behar dugula, kontuan izanda, gainera, garraio publikoa ez dela guztiz egokia, hori hobetzeko lanean dihardugun arren. Ez dugu trenbide sarerik Debagoiengan, esaterako... Horri irtenbidea eman nahi diogu.

**Autobidea asko erabiltzen duena saritu nahi duzue, batik bat?**

Begira: Bergararik Donostiara egunero joan-etorria egin behar duenak 100 euro ordaindu behar ditu Via-T gailua baldin badauka; bestela, 260 euro hileroko. Urtean, 1.000 euro. Egoera hori injustua da; lurraldean oreka, eskualdeen eta herritarren arteko oreka, bultzatu nahi dugu, eta irtenbideak eman. Irtenbidea planteatu dugu krisi garai honetan premia handiena dutenentzako.

**Asko eraiki dela diozue...**

Bai, eta modu desantolatuan. Errepideak ordaindu egin behar dira, eta ez da nahikoa zerga bidez ordaintzea. Beste neurri batzuk hartu behar dira. Bidegik 900 milioiko zorra dauka, hori da beste errealtate bat.

**Zein izango da baldintza, Via-T gailua edukitzea?**

Bai. Bankuetan dago eskuragarri, eta Ogasunean kontuak eguneratuta daudela ziurtatu behar da. Zenbat eta bidaia gehiago egin, deskontuak orduan eta handiagoak dira, eta behin deskontuak aplikatuta 25 eurora ailegaterakoan, gehiago ez du inork ordainduko. Gaur egun ordainpeko autobideak erabiltzen ez dituztenak ere anima daitezke erabiltzera, segurua goa eta egokiagoa delakoan.

**AP-8ko eta AP-1eko Gipuzkoako zatiei eragingo die proposamen horrek?**

Oraingoz, Gipuzkoako zatiari eragingo lioke, baina bagabiltza



Larraitz Ugarte, Arrasaten, kalean, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

Arabako Diputazioarekin harremanetan hemendik hara eta Gas-teizetik Arrasatera, bereziki, jende asko mugitzen delako.

**Honek guztiak Bidegik, gutxi gorabehera, 1,5 milioi euro gutxiago jasotzea eragingo lukeela ere badiozue.**

1,5 milioi euro gutxituko lirateke sarrerak, betiere jakin barik zenbat erabiltzaile berri batuko liratekeen sistema berrira. Egia da Bidegiren egoera oso delikatu dela, baina ikusten dugu autobideen esplotazio gastuak oso handiak direla. Bidelan enpresa pribatuak kudeatzen ditu ordainpeko autobideak, eta, gure ustez, oso kontratu garestia egin zuen bere garaian Bidegik enpresa horrekin. Eta gaur egun sinatuta duten kontratuaren arabera, diru publikotik bermatu behar zaio Bidelani %7,7ko irabazia edukitzea.

**"EAJ eta PSE-EE 25 euroen gaineko neurriaren aurka agertuko dira?"**

**"Etxegaratekoa partxe bat da, eta politika sakonagoak behar ditugu"**

tzea. Horrek esan nahi du urtero 6 milioi euro gehiago gabiltzala ordaintzen. Enpresa pribatuei diru-sarrerak bermatzeko, erabiltzaileek bidesari garestiagoak ordaindu behar ditugu? Uste dugu Bidelan gastuak murriztu egin daitezkeela.

**Proposamen hori Batzar Nagusietan ordezkatuta dauden gainerako alderdiekin adostu duzue?**

Zaila da alderdiek horrelako neurri baten aurka bozkatzeko, hori justifikatzeko. EAJ edo PSE-EE neurri horren aurka agertuko dira?

**Oposizio indar nagusiek eskatzen dizute lurraldeko errepideak finantzatzeko plan orokor eta zehatza aurkeztea...**

Oposizioak irudikatu nahi du haiek gobernatzen dutela eta Bildu ez dagoela gobernuan. Hori nabarmena da hondakinen edo errepideen gaian. Eta bestetik, ez daukagula norabiderik, programarik, eta inprobisatzen ari garela. Eta hori ez da egia: oso argi daukagu zer nahi dugun. Errepideak ezin dira zergen bidez bakarrik ordaindu, baina, lehenengo, irizpideak adostu behar ditugu. Hori proposatu genuen Batzar Nagusietan egitea, baina zirku bihurtu dute eta ezin izan dugu benetan sakoneko gaiez eztabaidatu. Ez da borondaterik egon ponentzia eztabaidatu eta beroni amaiera emateko.

**Gaur egungoak baino bidesari gehiago ipintzearen aldekoa da Gipuzkoako Foru Gobernuak?**

Etxegarateko bidesariaren aurka gaude, hasieratik helburu zuelako diru-bilketa bultzatzea. Nazioarteko garraiolariek ere ordaindu behar dutela aitzakia hartuta. Guk uste dugu Etxegaratekoa partxe bat dela eta politika sakonagoak behar ditugula. Garraiolariak ez kaltetzen saiatu behar dugu, eta, bestalde, gaur egungo kilometroko sistemak ez ditu babesten gipuzkoarrak.

**Bidesaririk ez, hortaz?**

Ez. Ez Etxegaraten, ez eta Andoainen ere.

**Eta Deskargan?**

Bankuekin konprometituta dago. EAJk Bidegirendako adostu zuten bankuekin 900 milioi horiek, bankuek behartu zuten Diputazioa bidesariak jartzera, Deskargan jartzera, hain justu ere 2015eko apirilera. Gainera, akordio horren arabera, kamioiak behar-

**"Bankuek behartu zuten Diputazioa Deskargan bidesaria jartzera"**

**"Bilduk programan garbi adierazi zuen atez atekoaren aldeko jarrera"**

tzen ditu kamino zaharra erabili beharrean autobidea erabiltzera eta 9 euro ordaintzera Deskargatik pasatzearen. Ibilgailuendako euro bat inguru da. Hau da, tarifak ere zehaztu zituzten.

**Non jarriko da ordainlekuak?**

Antzuola eta Bergara artean.

**Errepideei dagokien, zein da une honetan Diputazioaren lehentasuna?**

Urumeako autobidea amaitzen dihardugu, eta Deskargako zatia geratzen da. 2015eko apirilera amaituta egon beharko du. Datoren urtean hasiko dugu azken zatia; izan ere, orain Urretxutik Antzuolarainokorekin gabiltza. Eta Antzuola-Bergara urtarrilean hasiko dugu.

**Bergarako ekialdeko saihesbidea bikoizteko asmorik AP-1eko sarre-raraino?**

Ez, oraingoz ez, garestiegia da, hasierako proiektuan aurreikusitakoa bazen ere.

**Zelan daude AP-1 autobideko lane-tan hondatu ziren baserri auzoetarako bideak Debagoiengan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan?**

Apurka-apurka egiten dihardugu, Aretxabaleta eta Eskoriatzak udalekin batera, badoaz lanak aurrera.

**Aurrera doa Oñatitik Arrasaterainoko bidegorria, baina besteak?**

Lanak aurrera doa kasu konkretu horretan, eta, guretzat, gainera, lehentasunezkoak dira bidegorriak mugikortasun ikuspegitik, baina diru aldetik eskas gabiltza eta motel joango dira lanak. Bailara honetan, bereziki, bizikletan mugitzeko kultura handiagoa dago, gainera.

**Atez atekoaren kontra herririk herri, lurralde osoan, 60.000 sinadura batu direla dio EAJk...**

Egia da jende multzo dezente bat atez ate hiri hondakinak batzearen kontra dela. Errealitatea da eta sinadura, iritzi, gutziak errespetagarriak dira. Entzun egin behar diegu horiei. Baina uste dut atez ateko sistemaren aurka dauden %95ek ez dakitela benetan zer den sistema hori, ez dutela frogatu eta beldur ezezagun baten aurrean erantzuten dutela. Bilduk hauteskunde programan garbi adierazi zuen zein den postura; ez dugu inor engainatu. Uste dut hauteskunde programa hori aurrera atera behar dugula, erabateko babes lortu genuelako. Hernanin, Antzuolan... frogatu da eredu eta ondo funtzionatzeko du.





# HERRIAK

BERGARA

## San Martin berpiztera doaz

Aurten bete dira 150 urte santu izendatua izan zela eta 50, Zurrako gurutzea ipini zutela

JON BEREZIBAR | ARRASATE

San Martinetan aurten efemeride borobila beteko da santu misiolariarekin lotuta. Bete dira 150 urte Pio IX.ak kanonizatu zuela eta 50 urte dira santuaren omenez Zurrako gurutzea ipini eta udal txeko eskailera nagusietan Simon Arrietak horma-irudi ikusgarria margotu zuela. Efemerideari behar bezalako pisua eman gura diote, eta herritar talde bat hasi da lehen urratsak egiten, Jesus Arregi deituta. Hain zuzen, martitzen arratsaldean udal txean batzartu ziren alkatearekin Jon Molina abadea, Jesus Arregi bera, Zurrako gurutzearen eraikuntzan lan egin zuen aparejadorea, Rikardo Azkargorta -haren aitak, Fernando, diseinatu zuen gurutzea-, Miguel Angel Elkoroberezibar, Lorentxo Laskurain eta Valen Moñux. Talde eragilea sortu dute eta irailean berriz ere batzartuko dira. Valen Moñuxek "oso eman korra" izan zela dio.

### Presente, baina "ahaztuxe"

San Rokerekin batera Bergarako zaindaria da San Martin; gurtze erroto santua herrian eta jaien patroiz izanda estimatua dena. Haren omenez Zurrako gurutze ikusgarria ere bergararren txoko kutunenetakoa da; herriko talaia ofiziala. San Martinen historia eta eragina da, agian, Miguel Angel Elkoroberezibar idazleak aitortzen duenez, "ahaztuxeago" dagoena, eta efemerideen batu-ketaz baliatu nahiko luke irailean atzera ere batuko den taldeak santu martiriaren figura gertutzeko.

### Gurutzean hiltzeko bokazioa

Martin Agirre eta harekin Japonian izan ziren frantziskotarrak herrialde hartako lehen martiriak izan ziren. "Hemendik Sevillara joan, Sevillatik Mexikora, ondoren Filipinetara eta Japoniara

iristea; XVI. mende hartako zailtasunak jakinda, euren bokazioa betetzeko egindako ahaleginak gogorak" izan zirela nabarmen-tzen du Elkoroberezibarrek, figuraren garrantziaz galdetuta. "San Martinek berak gurutzean hiltzeko bokazio hori, neurri handi baten, hara joan aurretik" bazeukala dio hark. Hain zuzen, erlijiosoaren bizitza eta obrari buruzko liburua kaleratu zuen hark 1997an. Herrialdean frantziskotarrek eragin zuten inpaktua aitatzten du; iritsi zirela "inongo arma eta gerrarako asmorik gabe, abitua jantzita eta esku hutsik,



Gurutzea eraikitzen, 1962an. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOA, HILARIO AZKARGORTA



Molina, Arregi, Azkargorta, alkatea, Moñux, Laskurain eta Elkoroberezibar. | M.A. ELKOROBEREZIBAR

### Japoniako lehen kristau martiriak

San Martin Agirre 1597an gurutziltzatu zuten beste 26 erlijiosorekin batera Nagasakin, kristautasuna legez debekatua zegoen garaietan. Japoniako kristauen topalekua da Nagasaki, eta historikoki ere kristau komunitate handiena Japoniako hiri horrek izan du. Martiri eta santu da Eliza Katolikoaren arabera San Martin Agirre. Misiolariaren jatorria eta biografia ez daude erabat garbi, zalantzarik dokumentazio ugari baitago. XVII. mendean hasi zen beatifikazio prozesua eta



ordurako Bergarak eta Beasainek aldarrikatzen zuten Agirre herriko seme modura.

Zigor moduan ezker belarriko gingila moztu eta heriotzera zigortu zuten bere anaiekin batera debekatutako kristau fedea zabaltzeagatik. Gurutziltzatu eta lantzekin zulatu zituzten kondenatuak hil arte, 4.000 pertsonaren aurrean. Japoniako lehen martiriak izan ziren, 26 guztira, eta Eliza Katolikoak otsailaren 6an ospatzen du haien eguna egutegi liturgikoan.

txiroenei laguntzen" eta "gizarte oso bat nahasi" zutela azaltzen du. "Bokazioa aurrera ateratzeko pertsona ausart" moduan irudikatzen du Elkoroberezibarrek, "helburuak heriotzara arte eraman zituen". Euskaraz ere bazihar-duen, "testigantzak baitaude".

### Gurutzea, Bergararen lekuko

Zurrako monumentuak horixe omentzen du. Azken mende erdian herriaren garapenaren lekuko isila izan den gurutzeak presentzia handia du herrian, eta irailean iritsiko zaio omenaldi berezia. 1962an santuaren kanonizazioaren mendeurrena zela-eta ipini zuten, Jesus Agirre aparejadore zela, eta uneoro alboan Fernando Azkargorta eta Simon Arrieta artistak zituela. Arrieta-

rentzat lan handikoa izan zen urte hura, inondik inora, udal txeko murala ere urte hartakoa baita. 24 urte zituen garai hartan Agirrek, baina proiektuak sortu zion zurrara bizirik du gogoan. "Bergarar moduan" 50 urtean "gurutze horrekiko maitasuna" ez duela galdu dio Arregi, eta udal mailan zein herritarren artean ospakizuna prestatzen lagun ziezaioketen kideekin harremanetan jarri zen. Pozik Arregi ere bileran esandakoekin, eta "talde entusiasta" bat osatu dutela dio, "egiten dutena oso ondo egiten dakiena". Gurutzearen diseinua Fernando Azkargortak egin zuen, margolaria eta delinetaizalea zen-eta, eta Jose Arregi arduratu zen obra egiteko neurri eta zenbakiez. Simon Arrieta alboan izan zuten, hura ere bazelako San Martingo batzordeko kide eta bultzatzaile, eta biek eragin zioten mirespena akordatzen da aparejadorea. "24 urterekin munduarekin aurrera egiten duzu, eta proposatu zidatenean bi aldiz ere ez nuen pentsatu", eta erronka pozarren hartu zuela kontatzen du Arregi. "Ez zen erraza izan, ze behar denaren kontra, monumentua oinarrian estua da goiko aldean zabala" dela agertzen du Arregi, "eta are konplikatuago da, ze haizeak gogor jotzen duen leku baten baitago". Zailtasunak zailtasun, baina, lau bat egunean egin zuten obra osoa, "jaiak gainean zirela-eta, denbora errekorrean", eta ez euriak eta ezta haizeak ere, ez zuten atzeratu lana. Gurutzeak zeharka dituen lantzak, tximistorratz ere badi-renak, martiriaren tortura irudikatzen dutela azaltzen du. Gogoan ere badauka garai hartan lan guztiak herrian eragin zuten jaiara. Orduko ilusioarekin ekingo die antolakuntza lanei Arregi ere irailetik aurrera.

virginia.L

ILE-APAINDEGI MISTOA

Lapurdi 3 - ARRASATE - 943 79 65 65  
ondo pasau oporrak!

**Abuztuan**  
**ere zabalik!**  
(Goizez asteartetik ostiralera)

Eta orain  
**ESKAITZA BEREZIA!**  
**Ile tindatuta, metxak DOAN!**



# Kalean gaztelera hutsean dauden oharren aurrean, aldarrikapena

AEDk 1985eko 'Eta hau zergatik ez euskaraz?' kanpaina abiatu du berriro, 100dik gora pegatina jarrita

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

1985ean ekin zion AEDk *Eta hau, zergatik ez euskaraz?* kanpainari. Hizkuntza eskubideen urraketa-aren aurrean protesta ekintza izan zen, informazioa gaztelera hutsean zabaltzeko ohitura zutenei begira. Idatzion gainean pegatina jarrita, kontzientziario lan handia egin zen euskarazko informazioa ez zedin estalita geratu.

Bada, zorritzarekin azken asteotan alde zaharrean hainbat kartel eta idatzi gaztelera hutsean daudela ikusita, kanpainari berriro ere heltzea erabaki dute AEDkoek, biltegira joan eta 1985eko pegatina berberak aterata, logotipo zahar eta guzti.

**100dik gora pegatina, erraz**

Duela 15 egun hasi ziren ekintzarekin eta, "bilaketa zorrotza egin barik", 100dik gora pegatina jarri dituzte dagoeneko. "Hainbat urte pasa eta gero berriro heldu diogu ekintzari, azkenaldian ikusi dugulako ugaritu egin direla nabarmen gaztelera hutsez dauden oharrek: autonomoen zerbitzu-eskaintzak, kanpoko ikuskizunen kartelak



Pegatinak alde zaharrean ikus daitezke bereziki; irudian, Arbolapeta. | J. BEREZIARTUA

ESANAK

**"Azkenaldian nabarmen ugaritu dira gaztelera hutsezko oharrek kalean"**

ITXARO ARTOLA | AED-KO ARDURADUNA

eta bertako ostalarien oharrak dira horren adibide", adierazi du Itxaro Artola AEDko arduradunak. Auzo bateko jai egitaraua gaztelera hutsean argitaratu izana ere salatu du.

**Ostalariengana jotzeko asmoa**

Artolak gaineratu du ostalariekin gutunak bidali dizkietela: "Erakuslehoetan ez dugu pegatinarik jarri. Ez dugu arazorik sortu nahi, baina argi dugu gai horrek lan-keta behar duela. Ostalariekin gutun bidez, pertsonalki edo beste bide batzuk erabiliz jarri gara edo jarriko gara harremanetan". Izan ere, herritarrei informazio euskaraz helarazteko euskaraz jakitea ez da aitzakia, AEDren ustez: "Euskara jakitea ez da aitzakia. Bideak badaude, doakoak direnak. Ez dago zerbitzurik kontratatu behar: hor dago Udaleko Euskara Zerbitzua, eta, bestela, gu ere prest gaude laguntzeko".

## AEDren webgune berria, edukiz lepo

Internetek duen indarrak jabetuta eta euskara elkartearen ibilbide luzeko materiala digitalizatzeko beharrak eraginda, webgune berria aurten jarri du martxan AEDk, dirulaguntza bati esker. Oxel Arrieta arrasatearra aritu da atari berria diseinatzen, eta, adierazi digunez, AEDren logotipo berriaren koloreak hartu ditu oinarri: "Bisuala, dinamikoa eta erabilerraza egiten saiatu naiz", adierazi du.

Eduki interesgarria du webgune berriak. Besteak beste, agenda, bazkide egiteko eta hizkuntza urraketatik salatzen diren guneak, argazki zaharrez osatutako artxiboa, AED osatzen duten lantalde ezberdinen ekintzak eta albisteak jasotzen ditu. Gainera, 1989tik 1994ra argitaratutako *Jazten* aldizkariaren hamar aleak jaisteko aukera dago.



AEDren webgune berriak logotipoaren koloreak ditu oinarri. | J. BEREZIARTUA

## Bidaiatzeko aholku falta ez da aitzakia izan aurten ere

Gazte Bulegoak kalera atera du asteen informazio praktikoa: mapa, gida eta denetariko liburuxkak

J.B. | ARRASATE

Gazte Bulegoak oporretarako aholkuekin txostena prestatu du aurten ere, bidaiarien eskura jartzeko. Herrialdeka banatutako karpitetan, mundu osoko gidak, mapak, ostatuak, ibilbideak, planoak, leku bakoitzeko txoko eta egiteko interesgarrienak... denetariko informazio praktikoa batu du. Asteon, gainera, bulegoa kalera atera dute. Hau da, informazio interesgarriena kalean bertan

kontsultatzeko aukera izan da. Hala ere, gaur bertan hartuko dituzte oporrak eta irailaren 3an bueltatuko dira.

**Internet, iturri nagusi**

Gazte Bulegoaren webgunean [www.gaztebulegoa.com](http://www.gaztebulegoa.com) kontsulta daitezke bidaiatzeko aholkuak eta informazio praktikoa, *Bidaiteketa* deritzen loturan klikatuz.

Gainera, bidaiarien foroan hainbat webgune, ostatu hartze-



Gazte Bulegoa kalean dago; gaur izango da azken eguna. | GAZTE BULEGOA

ko bide ezberdinak, kostu txiki-ko hegaldien, aireportuen, trenen, ferryren eta autobusen berri edo autoa partekatzearen gaineko informazioa eskuratzeko bideak

ere eskaintzen dituzte. Era berean, osasun txartelak nola atera behar diren ere eskaintzen du Gazte Bulegoak; baita ikasle txartela ateratzeko ere, besteak beste.

## Oporretan lapurretak ekiditeko zenbait aholku

J.B. | ARRASATE

Heltzear diren abuztuko oporrei begira Iñaki Arriaga udaltzainburuarekin egon gara lapurreten aurrean aholkuak jasotzeko. Hasteko, Arriagak dio abuztuan Arrasaten lapurretak ez direla bereziki ugaritzen: "Hilero bailarako udaltzainburuak biltzen gara, eta estatistikek ez dute erakusten gorakada nabarmenik; Gabonetan lapurreta gehiago izaten dira".

Honako aholku hauek ekarri ditu gogora udaltzainburuak: "Konfiantzazko pertsonaren bati giltza uzteko aukera izanez gero, komenigarria litzakete noizbehinka pertsianak igo edo jaitea eta postontzia hustea etxean norbait dagoela pentsarazteko". Bestalde, Arriagak gomendatu du jendaurrean gaudenean hil osorako kanpora goazela ez jakinaraztea, "ez dakigu -eta nor ari den gure planak entzuten". Edozein susmo izanez gero 943 25 20 10 zenbakira deitzea aholkatu du, beldur barik: "Horretarako gaude", dio.

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE



Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

# Oreka eta grabitatea jolas dituen zirku ikuskizuna gaur

Xabi Larrearen 'Up!!!' Herriko Plazan (20:00); 45 minutu iraungo du, adin guztiendako

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Ikus-entzule guztiendako zirku ikuskizuna izango da gaur Herriko Plazan, Udazabal ekimenari esker, 20:00etan. *Up!!!* du izena ikuskizunak; orekaren eta grabitatearen mugekin jolas egiten du, pertsonaia amorratu, ironiko eta indartsu baten xelebrekeriez jantzita. Xabi Larrea aktoreak dioenez, maiatzean estreinatu zuen azken ikuskizun horrek teknika ezberdinak uztartzen ditu: "Kale-antzerkia, inprobisazioa, magia, *clown*-a, malabarismoa... Halako hainbat teknika lantzen ditut ikuskizun osoan".

Bakarrrik dator, baina ikuslearen lagun egiteko asmoz: "Jendearen parte-hartzea beharrezkoa da niretako. Klean gauza asko gertatzen dira inprobisaziorako aukera ematen dutenak, eta horiek aprobetxatzea publikoak asko eskertzen du. Izan ere, oso teknika zailak erabili arren, finean publikoak gura duena da barre egin eta ondo pasatzea", dio.

## "Jendeari gustatzen zaio"

Orain arteko emanaldietan oso harrera ona izan duela dio Larreak, eta, nahi baino ikuskizun gutxiago lotu dituen arren, pozik dago jendearen erantzunarekin. Arrasatearrindako ere gustukoa izatea espero du: "Ikuskizun bakoitza ezberdina da eta orain arte nire pertzepzioa da jendeari asko gustatzen zaiola. Saiok irauten duen bitartean bestelako arazoez ahaztu egiten dira, eta espero dut Arrasaten ere hala gertatzea". Adin guz-

tiendako da, 45 bat minutukoa.

Deustuko gaztetxean hasi zen Larrea interpretazioaren munduan: "Frantziar bat ezagutu nuen malabarismoa egiten mundu osoan zehar bidaiatzen zebilena, eta haren bitartez hasi nintzen ni ere. Zaletasuna zen hasieran, baina handik Ingalaterrako zirku eskolara joan nintzen eta gero Japoniako eta Kubako eskolak ere ezagutu nituen". Opor garaiak gehienendako, lan gustura egiteko garaia Larrearendako.



Ikuskizuneko une bat. | ARRASATEKO UDALA

## Monterrongo zinema emanaldiek, oporrik ez abuztu osoan

Udazabal ekimenaren barruan, Monterron parkeko udako zinema emanaldiek ez dute geldialdirik egingo abuztuan. Gaur izango da uztaileko azken emanaldia: *Urte berri on amona!* euskal filma egongo da ikusgai. Abuztuan, berriz, bost pelikula ikusteko aukera izango da, egubakoitzero: hilaren 3an *Intocable*, 10ean *Cowboys & Aliens*, 17an *Capitan America*, 24an *Aita Zonbia naiz* eta 31n *Un feliz acontecimiento*. Irailean bi film ikusi ahal izango dira: irailaren 7an *La cazarrecompensas* eta hilaren 14an *La edad de hielo 4*, hain zuzen ere. Film guztiak 22:30ean hasiko dira.

## Odola emateko deia abuztuaren 7rako, Eroskiko aparkalekuan

Arabako Odol Emaileen Elkarteak odola emateko dei egin du abuztuaren 7rako. Lehen aldiz joango da Eroskira odol ateratzeak egiteko autobusa, 09:30etik 13:30era.

Antolatzaileek gogorarazi dutenez, alde aurreko kontrol medikoa egiten da eta ez dago zertan baraurik joan; hori bai, gomendatzen da odolik ez ematea asko jan eta bi ordu baino lehen. Gainera, gogoratu dute ateratzeak ez duela inolako eraginik emailearen odol bolumenari dagokionez. Odola "beharrezkoa" dela diote: "Ezin da laborategian egin, giza odolak bakarrik salba dezake gizakia".



BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

## 35 lagun San Lorentzo eta inguruetan, giro ederrean

Besaide mendizale elkarteak antolatutako irteerarekin bat eginez, 35 lagun elkartu ziren domekan Valdezkarai, San Lorentzo eta Valvanera monasteriora arteko ibilbidea egiteko. Urteroko hitzordu bihurtu den San Lorentzo mendiko gailurrera (2.271 metro) igo eta hainbat txoko bisitatzeko aukera izan zuten, besteak beste. Adierazi digutenez, "eguraldi zoragarria" egin zuen ibilbide osoan eta giro ederrean ibili ziren.

## Yael: manikura eta pedikuretan aditu, produktu naturalak erabiliz betiere

Ile apaindegia duela bi aste ireki zuten Amaia Egizabal eta Scarlet Perezek. Eskarmentu handikoak biak, ilea tratatzeaz gain manikura zein pedikura espezializatu dira.



Scarlet Perez eta Amaia Egizabal, Yael ile apaindegi ireki berrian.

“Manikurak, pedikurak, azazkal landuak eta portzelanazko azazkalak. Hau da, azazkalekin zerikusia duen edozein tratamendu eskaintzen dugu, eskuetan zein oinetan.”

Ilusio handiz ekin dio proiektu berriari Yael ile apaindegiak. Amaia Egizabal duela bederatzita urte hasi zen ile apaindegietan lanean eta Scarlet Perezek, berriz, badaramatza bost urte manikura eta pedikurarak egiten: "Manikurak, pedikurak, azazkal landuak eta portzelanazko azazkalak egiten ditugu. Hau da, azazkalekin zerikusia duen edozein tratamendu eskaintzen dugu, eskuetan zein oinetan". Esmalte normala zein iraunkorra eskatu, dotore uztea eta azazkalei ahalik eta min gutxien egitea bermatzen dute.

Eta berdintzatamendu kapilar guztiakin: "Ilea osasuntsu mantentzea da lehen helburua. Tindatzeetan, esaterako, produktu kaltegarriak ahalik eta gutxien erabiltzen ditugu".

Ile apaindegi mistoa da, eta, ireki berria izan arren, esan digute zenbait herritar hurbildu direla dagoeneko: "Oraindik askok ez dakite ireki dugunik, eta, beraz, ez dakite zer eskaintzen eta nola funtzionatzen dugun. Baina etorri direnen artean

oso iritzi onak jaso ditugu, orokorrean".

### Ingurumena zainduz

Era berean, Yael ile apaindegian erabiltzen dituzten produktu guztiak naturalak eta ingurumena zaintzeko pentsatuak direla gaineratu du Egi-

zabalek: "Aukeratu dugun etxe hornitzaileak fitozentikoak –parabeno gabeko produktuak– eta oinarritzko olioak erabiltzen ditu, eta beraz, dena da oso naturala. Gainera, produktuen ontziak ere erabat birziklagarriak dira".



Y A E L ile apaindegia  
Legargain 1 etxebaia  
ARRASATE  
943 04 47 30  
yael\_legargain1@hotmail.es

Asteazkenetan erretiratuentzako prezio bereziak

Zabaldur berria!

Manikura eta pedikura bereziak (zure gustura)

ABUZTUAN ERE ZABALIK

# Terraza duten ostalariei abuztuan tasak ez kobratzeko aukera aztergai

Terrazak, kudeaketa ekonomikoa eta soldatak hizpide osoko bilkuran

T. MADINA/A. BARRUSO | BERGARA

Terrazak dituzten herriko taberna eta jatetxeei abuztuan lurzoru publikoaren errenta ez kobratzea izan zen astelehenean egindako osoko bilkuran eztabaidatutako puntuetako bat. Izan ere, EAJk horixe eskatu zuen osoko bilkuran aurkeztutako mozioan. Jeltzaleek adierazi zuten abuztuan herria triste egoten dela eta turistek ez dutela zerbitzu nahikorik izaten otorduak-eta egiteko. Proposatutako neurriekin ostalariak terrazak jartzera animatu nahi dituzte. "Zerbaitekin hasi beharra dago. Hori ez da neurri bakarria ezta azkena ere izango", azaldu zuen Aintzane Oiarbide zinegotzi jeltzaleak.

Udal Gobernuak, berriz, adierazi zuen berez neurriaren kontra ez dauden arren, sakontasun handiagoarekin aztertu beharreko kontua dela, besteak beste, neurri diskriminatzailea izan daitekeelako. "Zer gertatzen da terrazarik ez duten ostalariekin? Horiek ez dute hobaririk jasoko eta hori ez da bidezkoa", azaldu zuen Jesus Elortza alkateak. Horrez gain, Justina Elexpuru zinegotziak pasa den urteko datuak emanez adierazi zuen taberna dezente egon zirela irekita.

Hala, oraingoz, neurria ez onartzea eta hurrengo ordenantza fiskalak eztabaidatzen direnean gaia sakonago aztertzea proposatu zuen Udal Gobernuak kontra-mozio batekin. Hain justu ere, azken hori izan zen osoko bilkuran bozkatu eta onartu zena. EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten, Udal Gobernuo kide Aralarko Juanje Amasorrain abstenitu egin zen eta gainerako Udal Gobernuo kideek aldeko botoa eman zuten.



Irala kalean taberna gehienek daukate terraza. | ANDER MONEDERO

## ESANAK

**"Abuztuan terrazen tasak ez kobratzea da proposatzen duguna"**

AINZANE OIARBIDE | EAJ

**"Terrazarik ez duten ostalarientzat diskriminatzailea izan daiteke"**

JESUS ELORTZA | ALKATEA

## Mizpirualden ohe gutxiago

Eztabaida piztu zuen beste puntu bat Mizpirualde zaharren egoitzarekin lotutakoa izan zen. EAJk kritikatu zuen egoitzan azkenaldian egin diren moldaketekin plazak murriztu egin direla. Udal Gobernuo kideek erantzun zuten murrizketa horiek ezinbestekoak izan direla legea bete ahal izateko. Legeak eskatzen duelako logelaren %25 banako gelak izatea.

## Soldatak eta ekonomia politika

Galdera eta eskaeren tartean, EAJren eta Udal Gobernuaren arteko eztabaidak jarraitu egin zuten. Udal Gobernuo kideek euren desadostasuna erakutsi zuten gainerako talde politikoek lehen urteari buruz egindako balorazioaren gainean.

EAJk duela aste bi egindako agerraldian salatu zuen, besteak beste, Udal Gobernuaren politika ekonomikoa "arduragabea" izaten ari dela eta pertsonal gastua %35 igo dela. Horren

harira, zinegotzi jeltzaleek adierazi zuten EAJ agintean egon zen azken urteetan politikari bakarria zegoela soldataz ordainduta –alkatea– eta orain, berriz, alkatea eta bi zinegotzi daudela liberatuta.

Jesus Elortza alkateak adierazi zuen oposizioak hedabideen aurrean egindako agerraldian datuak manipulatu egin zituela: "Gezurra esatea gaizki dago, baina okerragoa da egia batzuk esan eta beste batzuk ezkutatzeko, hori manipulatzeko delako. Horregatik, osoko bilkurara EAJren salaketak argitzeko datuak ekarri nahi izan ditugu. Gaizki ulerturik egon ez dadin".

Udal Gobernuaren esanetan, alkatea %100 dago liberatuta, Bilduko zinegotzi bat %80 eta beste bat %66. Azken hori Udalak ordaintzen du, baina Bilduri dagokion asignaziotik; beraz, haien hitzetan, "1,80 da liberatuen kopurua". Bestetik, adierazi zuten 2004an –EAJ agintean zegoenean– zegoen liberatu bakarraren soldata KPIren igoera aplikatuz gero soldata hura 67.821 euro litzatekeela eta orain kopuru ia berarekin –68.505 euro– Udaletik liberatuen 1,80ren dedikazioa ordaintzen dela.

Azkenik, eta kudeaketa ekonomiko "arduragabearen" gainean egindako kritikei erantzunez, Lauri Askargorta zinegotziak adierazi zuen adierazle ekonomiko-finantzarioak hobetu egin direla eta Udalaren maileguaren zorra hiru miloi txikiagoa egitea lortu dutela.

## Tavexeko langileak, laguntza eske

Tavex enpresako langileek protagonismo berezia izan zuten asteleheneko osoko bilkuran. Mozio bat aurkeztu zuten, eta bertan, udalbatzari eskatu zioten enpresari eskatzeko langileekin dituzten betebeharrak betetzeko. Bestetik, eskatu zuten bien bitartean Tavexek Bergaran dituen lurretan lanik edo bestelakorik egiteko lizentziarik ez emateko.

Alderdi politiko guztiak mozioaren alde agertu ziren, eta, gaiak nazioarteko inplikazioa duenez, EAJko Aintzane Oiarbidek adierazi zuen Izaskun Bilbao europarlamentario jeltzalearengana joko dutela laguntza eske: "Europako Legebiltzarrean galdetzeko eta informazioa batzeko eskatuko diogu".

## Postal Lehiaketa antolatu du Jardunek lehen aldiz

Oporretan gaudela postalak idazteko ohitura berreskuratzea da helburuetako bat

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Oporretara joan, eta noiz idatzi zenuen azkenengo aldiz postal bat? Teknologia berriek aurre hartu diote posta arruntari, eta, egun, WhatsApp, SMS edo e-posta bidez ematen diegu gure gertukoenei oporretako gorabeheren berri. Bada, Jardunek ohitura zaharrak berreskuratzea nahi ditu eta postalak berritoki ere bueltaka ipini. Euskarazko Postal Lehiaketa antolatu dute aurten. "Gaur egun gero eta gutxiago erabiltzen

dira postalak, baina denok dakigu nolako ilusioa egiten duen postal bat jasotzeak. Gure helburua da horrenbesteko ilusioa egiten duen eta galtzen dagoen ohitura berreskuratzea".

### Irailaren 17ra arte zabalik

Postalean kontatutako istorioen gaia librea da, baina lehiaketan parte hartu ahal izateko postalek jatorrizkoak eta euskaraz idatzitakoak izan behar dute. Noski, ez dira eduki edo jarrera matxistak



Postalak Jardunen egoitzara bidali behar dira. | GAZTEZULO

dituzten postalak onartuko. Lehiaketan edozein herritarrek parte har dezake; hau da, ez da adin bereizketarik egingo eta parte-hartzaileek nahi beste postal bidali ahal izango dituzte.

Honako helbidera bidali behar du: Euskarazko Postal Lehiaketa, Jardun elkarte, Errotalde jauregia, 20570, Bergara. Garrantzitsua da parte-hartzailearen telefono zenbakia ipintzea.

Postalak bidali ahal izateko azkenengo eguna irailaren 17a izango da. Irabazlearen izena oportetarik bueltan jakingo dugu; saria argazki-kamera digitala izango da.

### Irailaren 7an 'Zirko koloretsua'

Oporretatik bueltan, bestetik, Bergarako gaztetxoek Florenzio Galdinoren *Zirko koloretsua* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute. Florenzio Galdino lorezaina da, eta bere lorategi debekatura joango da lanera. Florenziok, lorategiko sagarra jatean, aldaketa jasango du, eta, hortik aurrera, bere lana abentura bilakatuko da. Besteak beste, malabarismoa eta magia uztartzen dituen ikuskizuna da.

Emanaldia San Martin plazan izango da irailaren 7an, egubakoitza, 18:30ean.

## 719 lagunek hartu dute parte Udako Kanpainan

M.R. | BERGARA

719 lagunek hartu dute parte Udako Kanpainan; joan den urtean baino 144 gehiago izan dira. Hala, aurten, azken sei urteetan izan den partaidetzarik handiena izan dute. Multijardueretako partaidetza igo egin da, baita irristaketakoa ere. Igeriketako saioek ere haur ugari erakarri dituzte.

Helduekin beherakadaxo bat igarri da aurreko urtearekin alderatuta. Izan ere, 127tik 115era jaitsi da.

Hala ere, erronka zailena gazteak erakartzea izan da. Izan ere, gazte gutxi eman dute izena aurtengo Udako Kanpainan.

Ekainaren 25ean hasi zen kanpaina eta uztailearen 20ra arte aritu dira. Hain zuzen, Bergarako hainbat lekutan aritu dira saioak egiten.

## Gaztetxean barrura begirako auzolanak egiten ari dira

Bergarako gaztetxean hainbat ekintza egiten dira, eta, oraingoan, barrura begira jarri dira eta auzolanak egiten ari dira uztailean. Hala, boulderra eraiki, agertokia berritu eta sukaldea eraberritzea dira proiektuak, eta herritarren partaidetza beharrezkoa da. Harremanetan jartzeko: [bergarakogaztetxia@gmail.com](mailto:bergarakogaztetxia@gmail.com).

## San Joxeperekin, Donostiako suak ikustera

Abuztuaren 16an Donostiako suak ikustera joango dira Bergararik, San Joxeperekin. Autobusean egingo dute bidaia, eta 59 lagunendako izango da, gehienez. Arratsaldean irten-go da, 16:00etan, autobus geltokitik. Horretarako, izena eman beharko da abuztuaren 6a eta 10a bitartean San Joxeperen bulegoan, 16:30etik 18:00ak arte.

## 1942an jaiotakoak Bilbora joango dira irailaren 29an

1942an jaiotakoak, alegia, aurten 70 urte betetzen dituztenek, kintada egingo dute. Irailaren 29an Bilbora egingo dute txangoa. Irteera goizeko hamarretan izango da Bergarako merkatu plazako atzealdean. Irailaren 19a baino lehen 50 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutxako 0090089619 kontuan.

# 4.920 euro Lokatzaren Tourreko porrako lehen sarituarentzat

Sebas Fernandez arrasatearrak eraman du aurtengo lehen saria

MAIALEN REGUEIRO | BERGARA

Astelehenean, hilak 23, banatu zituen Bergarako Lokatza txirringulari taldeak Frantziako Tourreko porrako sariak. Aurten 492 porra egin dira eta Lokatza taldeak, guztira, 9.000 euro banatu ditu. Izan ere, asteleheneko sari banaketa ekitaldian, guztira sei sari banatu zituzten.

### Sari nagusiak

Lehen saria arrasatear batek eraman zuen, Sebas Fernandezek, hain zuzen ere, eta 4.920 euroko

saria jaso zuen. Izan ere, arrasatear horrek, guztira, 1.436 puntu lortu zituen.

Palomo ezizena duen antzular batek eraman zuen bigarren saria, hark 1.409 puntu lortu baitzituen. Bigarren sari hori irabazteagatik, antzular horrek 2.460 euroko saria jaso zuen.

Azkenik, hirugarren saria banatzeko orduan berdinketa egon zen, bai puntuazioan, eta baita etapa irabazleetan ere. Hori dela eta, saria bi pertsonaren artean banatu behar izan zuten:

1.476 euro. Hala, Peter Velits ize-narekin aurkeztu zen antzularrak eta Amelu arrasatearrek 738 euro eraman zituzten, biek 1.379 puntu baitzituzten.

### Zabala jatetxearen saria

Sari nagusiez gain, beste sari batzuk ere banatu ziren. Horien artean, Zabala jatetxearena. Izan ere, jatetxe horrek aurten urteurrena ospatu du, eta, hori dela eta, porrako zenbakia saritu zuen. Aurten egokitu den zenbakia 83 izan da. Beraz, Xabier Eguren



Porrako saridun guztiak, opariak jaso ostean. | AMAIA TXINTXURRETA

eraman zuen Bergarako jatetxe horrek emandako saria.

### Lehen euskalduna

Kasu horretan, 12 pertsonaren arteko zozketa egin behar izan zuten asteleheneko sari banaketan. Izan ere, sari horretan, lehen txirringulari euskalduna zein izango den asmatu behar da. 12 lagunek Haimar Zubeldia usurbildarra izango zela apustu egin zuten.

Hala, saria Sakarina Beltza izenarekin egindako porrak eraman zuen. Ardo botila eta lore sorta opari egin zioten.

### Parte-hartzaileendako saria

Azkenik, aurtengo porran parte hartu duten guztien artean zozketa egin zuten eta irabazle bat egon zen. Izan ere, asteleheneko ekitaldian, sariak banatzen zituzten momentuan, porran parte hartu duten guztiak bertan zeuden, eta horien artean pertsona bat izendatu zuten.

Horrela, Gaittao harategia izan zen saria banatzeaz arduratu zena, eta Anetek eraman zuen sari hori.

### Guztiak pozik

Noski, ekitaldian saria jaso zutenak pozik agertu ziren, inoiz ez baituzu espero horrelako sari bat irabaztea.

Porrako lehen saria irabazi zuena ere -Sebas arrasatear-sariarekin gustura agertu zen, eta horrelako apustuak irabazteko zaletasuna eta zortea beharrezkoak direla esan zuen.

Lokatza txirringulari elkarteak ere pozik agertu zen atzoko ekitaldian. Izan ere, aurtengo porrak izandako harrera oso ona izan dela adierazi zuten. Are gehiago, inoiz baino porra gehiago izan direla baieztatu zuten: guztira, 492, hain zuzen ere.

## Bolu auzoko eta Santixau jaiak asteburu honetan

Umeentzako jolasak, txapelketak, musika... egongo dira bi auzoetako jaietan

M.R. | BERGARA

Gaur arratsaldean hasiko dira Santa Anako jaiak Bolu auzoan, 19:00etan. Egitaraua zabala da eta denetarik egiteko aukera egongo da asteburu osoan. Goimendin, aldiz, Santixau jaiak ospatuko dituzte domekan.

### Bolu auzoan

Gaur hasiko dira jaiak, 19:00etan, kalejirarekin. 20:00etan txupinazoa eta Santanaxoren jaitsiera egingo da eta 22:30ean, berriz, Cafe Irlandes taldeak kontzertua eskainiko du.

Bihar egun osoan ekintza ugari egongo dira; besteak beste, patata-tortilla lehiaketa, mus txapelketa, mozzorro lehiaketa, herri-txikiteoa eta dantzaldia. 10:00etan hasi eta 02:00ak arte egitarau zabala egongo da. Azke-

nik, domekan pilota partiduak, haurrentzako magia, tute txapelketa eta musika egongo dira, besteak beste. Hala, jaiak 22:00etan amaituko dira, Santanaxoren igoerarekin.

### Santixau jaiak Goimendin

Auzo horretako jaiak domekan 11:00etan hasiko dira kanpai-errepika eta etxafuegoekin. Ondoren, umeentzako jolasak egongo dira. Bertso saioa ere egongo da, 12:30ean. Eguerdiko ordu batean meza izango da.

Arratsaldean herri kirolak izango dira, eta baita bola-joko txapelketa ere. 19:00etan bertsoak izango dira entzungai eta horren ondoren erromeria hasiko da. Eta jaiak amaitzeko, berriz, 20:00etan urdaiazpikoaren zozketa egongo dute.

## Udalak atez atekoaren berri eman nahi du

Baserritarrek, dendariak eta ostalariak zabor bilketari buruzko informazioa jasoko dute

M.R. | BERGARA

Mankomunitateak bideratuko ditu baserritarrek, dendariak eta ostalariak zabor bilketari buruz jasoko dituzten bisitak edo telefono deiak. Izan ere, Bergarako Udalak baserritarrek, dendariak eta ostalariak informatu nahi ditu.

Hala, bisitaren bat edo telefonozko deiren bat jasotzen dutenean Mankomunitatera dei dezakete bisita ofizialak direla egiaztatzeko.

### Atez atekoa

Bergarako Udala atez atekoa baserri-auzoetan ezartzeko informazioa ematen eta jasotzen ari da. Ondorioz, datozen egunetan, herriko baserrietan, dendetan eta tabernetan informatzaileen bisitak edo telefono deiak jaso-

ko dituzte. Hala, bergararrek etxeko zaborra kudeatzeko dituzten beharrik eta ohiturak zeintzuk diren jakingo da. Dena den, sistema berriaren gaineko informazioa emango diete, behar bezala egokitzeko.

### Mankomunitatea

Herritarrek lasai egoteko eskatu du Bergarako Udalak. Izan ere, Debagoieneko Mankomunitatea deitzen ari da (943 79 33 99), baina telefono dei horiek benetakoak dira.

Debagoieneko Mankomunitateak atez atekoari buruzko informazioa zabaltzeko eta herritarrei sistema horren berri emateko hainbat pertsona kontratatu ditu, eta horietatik lau Bergaran dabilta.



Santa Ana antzokia kanpotik. | IRATI GOITIA

# Santa Anan, ekitaldiez gain, baita hiletak ere

Hileta zibilak egin ahal izango dira antzokian

IRATI GOITIA | OÑATI

Atzo eginiko osoko bilkuran hileta zibilak arautuko dituen ordenantza onartu zuten. "Helburua da hileta zibilak egiteko udal lokalen eta gune publikoen erabilaren baldintzak arautzea",

azaldu zuen Udal Gobernuak. Eta gaineratu: "Estatu ez-konfesional edo laiko batean, erakundeek bermatu behar dituzte askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna". Hala, Oñatiko Udalak gizartean gero eta

eskaera handiagoa duen behar bati erantzuten diola ere zehaztu zuten.

## Gune itxi zein irekiak

Hileta edo omenaldi zibilak egiteko bi gune itxi eta beste bi ireki proposatzen ditu Udalak; zehazki, honakoak: Santa Ana antzokia eta haren kristalezko gunea; eta Santa Anako lorategia eta hilerriaren aurrealdeko parkea. Gune itxietan beste ekintzaren bat balego, gune irekietako bat aukeratu beharko litzateke.

Hileta zerbitzuak eguneroko egin ahal izango dira, domeketan eta jaiegunetan izan ezik. Eta ordutegia izango da 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Zapatuan, aipatutako ordutegiaz gain, 12:00etatik 14:00etara ere egin ahal izango dira.

## Udalak laguntza eskainiko du

Eskaerak Oñatiko Udaleko Alkatezara bideratu beharko dira eta ospakizuna egin nahi den egunaren bezperan 14:00ak baino lehen egin beharko da.

Ekitaldiaren ospakizunak udal langileen laguntza izango du. Hala, hiletak irauten duen bitartean Udaltzaingoa kanpoaldean egongo da. Horretaz gain, Udalak eskatzaileen eskura jarriko ditu: megafonia, aulkiak eta hilkutxari eusteko elementu bat. Hala ere, atzo onartutako ordenantzak gune itxietan hilotza aurrean ez izatea gomendatzen du.

Urrian zehaztuko dituzte tasak, beste ordenantza baten.

# Durun ospakizunak izango dituzte asteburuan

Abuztuan ere ez da festarako aukerarik faltako

I.G. | OÑATI

Nobedadeekin dator aurten Duruko eguna. Hobe esanda, egunak. Izan ere, horixe da berrikuntza: egun bateko ospakizuna egin beharrean, asteburu osoa egingo dute.

Zapatuan hasiko da festa, mendiko bizikleta lasterketarekin, futbol partiduarekin eta txorimaloekin. Gauean, berriz, diapositiba eta bideo emanaldia izango dute, 11:00etan. Domekan, meza izango dute Aierdiko aterpean, eta ondoren, salda beroa eta pintxoak. 12:00etan, Unai-mendi gainean, herri kirolak, batzen direnekin. Auzoko artzainen gazta dastatzea ere izango da. Gero, etxabolaz etxabola kalejira trikitalari eta bertso-lariekin. Bazkaria ere izango dute; 200 lagun batuko dira.

## Lizargarate eguna

Abuztuan ere izango da parrandarako aukera. Hainbat auzotan ospatuko dituzte jaiak: Lezezarren, San Lorentzon eta Urrexolan. Bestalde, abuztuaren 26an, Lizargarate eguna egingo dute. Ez da trikitalari doinurik faltako. Bazkarirako izen-emaitea: Urbian, Umerezen eta Lizargaraten.



Etxola batetik bestera. | A. BERMEJO

## ABUZTUKO HITZORDUAK

### Abuztuaren 4tik 5era:

Lesezarriko jaiak.

### Abuztuaren 10etik 12ra:

San Lorentzoko jaiak.

### Abuztuak 8:

Urrexolako jaiak.

### Abuztuak 18 eta 25:

Espeleoabentura / Espeleo txiki.

### Abuztuak 25:

Surf festa.

### Abuztuak 26:

Lizargarate eguna.

### Abuztuak 31:

Josu Zubiaren eta artista gonbidatu baten kontzertua Atzeko kalean.

# Monumentu Multzo izendapena jaso du Oñatiko alde zaharrak

I.G. | OÑATI

Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamenduak Oñatiko alde zaharra Monumentu Multzo izendatzea onartu zuen martitzenean eginiko Gobernu Batzordean.

## Eraikinak babestu

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Oñatiko alde zaharrak duen interes historikoa eta artistikoa baloratu du izendapen hau egiterako orduan. Eta besteak beste, monumentu historiko asko kontserbatzen dituela zehaztu dute, adibidez, jau-regiak. Babes maila ezberdinak

ezartzen ditu izendapenak, erai-kinen garrantziaren arabera.

Monumentu Multzoak bere baitan hartuko ditu, esaterako, Kale Zaharra, Kale Barria, Atzeko Kale, Santa Marina plaza eta horien inguruak.

Erabakia oraindik ez da aldizkari ofizialean argitaratu eta baliteke oraindik aldaketak izatea. Oñatiko Hirigintza arloarekin harremanetan jarrita, adierazi digute ez dituztela jaso izendapenaren gaineko xehetasunak.

Arrasateko eta Bergarako alde zaharrek badute, dagoeneko, izendapen hau.

## Abuztuan udal zerbitzuek ordutegi berezia izango dute

Udaletxea, abuztuan, zapatuetan itxita; gainontzean, ohiko ordutegia: 09:00etatik 14:00etara. Zubikoa, astelehenetan itxita; martitzenetik domekara 10:00etatik 20:00etara. Kultura etxean, nagusien liburutegia, 09:30etik 13:30etara zabalik. Eta gaztelekua, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

## Elkarretaratzea egingo du Herrirak uztailaren 31n Urbiako zelaian

Euskal Presoak Euskal Herrira lelopean elkarretaratzea egingo du Herrira mugimenduen Urbian, San Inazio egunez, uztailaren 31n, 12:00etan. Urbiana igotzeko Arantzazuko Sindika ostatuaren parean elkartuko dira, 10:00etan. Bestalde, gaur, azken ostiraleko bilkura egingo dute plazan, 20:00etan.

UDAKO *kronikak*

# Zure kronika

Zauden tokian zaudela, zure nondik norakoen berri jasotzeko irrikitan gara uda honetan.

Zure bidaiak, gomendioak, argazki bitxiak, anekdotak...

Nahi duzun guztia

Emaiguzu zure bizipenen berri abuztuan zehar [berriak@goiena.com](mailto:berriak@goiena.com) helbidean eta Goiena.net-eko 'Udako kronikak' atalean argitaratuko ditugu.

HARTU PARTE!

# Andramaixak musikaz eta antzerkiz beteta datoz

Sparteens, Iheskide, Zea Mays, Governors eta MCD taldeen kontzertuak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hamabost egun pasatxo besterik ez da geratzen Andramaixetarako, eta Kultura Sailak gertu dauka egitaraua; asteen banatu du, hain zuzen, egitarau hori. Kale antzerkiak eta kontzertuak izango dira protagonista, eta Txinako akrobaziak nobedade.

## Txosnaguneko ekitaldiak

Iaz legez, Gazte Ekimeneko kideek emango diete hasiera jaiei abuztuaren 13an, astelehena, Nafar Eguna ospatuta. Udalarekin elkarlanean zehaztu dute txosnaguneko egitaraua, eta ekitaldi mordoak iragarri dituzte: gazte afaria hilaren 14an; dantzaldia Gozo-Gozo taldearekin, 15ean; preso eta iheslarien aldeko bazkaria; eta Zopilotes Txirriaos taldearen kontzertua, 17an. Horrez gain, Koadrilen Eguneko jolasak girotuko dituzte.

## Antzezlanak eta akrobaziak

Jaiei hasiera ofiziala emango dien ekitaldia abuztuaren 14an izango da (19:00): ikurrinari agurra, alkate txikiak izendatzea eta txupinazoa. Aurtengo alkate txikia izango da Axel Armendia eta ordezkoa, Irati Gartzia. Orduan sartuko dira aretxabaletarak bete-betean jaietan. Ikuskizunez betetako lau egun izango dira, ume zein helduendako: Azkona taldeak *Natura gara* lana eskainiko du eta Valentziako Scura Splats taldeak *Corral-caos* kale animazioa, biak Andramari egunean; Zirika Zirkus taldeak *Zirika zirkaos* eskainiko die txikienei Koadrilen Egunean; eta aurtengo nobedadea Txinako akrobaziak izango dira, hilaren 16an.

Chongqing Circus taldeak 40 urte baino gehiagoko ibilbidea du, eta hamaika lagunek osatzen dute egun. Debagoieneko estreinaldia egingo dute gurean, eta ondoren Arrasate eta Oñatira joango dira. Malabarismoak, kandelak dituztela bihurritzeak eta loreontziekin oreka jolasak eskainiko dituzte, beste hainbat akrobazia batzuekin batera.



Txinatik datorren Chongqing Circus taldeko kideen ikuskizuna. | KULTURA SAILA

## Hainbat eratako kontzertuak

Kontzertuen egarria asetzeko, oster, doinu ezberdinak lantzen dituzten taldeak datoz: euskal kantu ezagunak ye-ye eran interpretatuko ditu Lapurdiko Sparteens taldeak eta punk-rock doinuak ekarriko ditu Elorrioko Iheskidek, hilaren 14an; Aiora Rementeria buru duen Zea Mays eta rock eta metalaren arteko nahasketa egiten duen Governors

izango dira Andramari egunean; eta Bilboko punk talde historiko MCD eta herriko taldeak, hilaren 16an. Koadrilen Egunean, oster, egun osoan izango da musika: batetik, Baralde txaranga; bestetik, Jamu talde senegaldarraren batukada; eta bukatzeko, Zopilotes Txirriaos nafarraren tex-mex doinuak txosnagunean.

## Ohiko ekitaldiak

Horiekin guztiekin batera, ezin ahaztu ohiko ekitaldiak: mus txapelketa; elizbira; meza nagusia udalbatzako kideak bertan direla; Leintz bailarako 74. txirrin-dulari lasterketa; profesionalen arteko pilota partiduak; sokamuturra; eta herri bazkaria.

## Egitarauak zeresana

Andramaixetako egitarauaren gainean herrian hainbat zurrumuru izan direla eta kontu horiek argitzeko eskatu zion martitzeneko osoko bilkuran Aralarrek alkateari: "Jai batzordeak egitarau bat adostu ondoren, alkateak beste gestio batzuk egin eta horrek egin duela aurrera esaten da, nahiz eta garestiagoa izan".

Ana Bolinagak eta Zigor Quintanilla Kultura zinegotziak erantzun zuten hainbat proposamen jarri zirela mahai gainean eta alkatearena iritzi zela "egokien", horregatik egin zuela aurrera.

# Irailean Areantzakoak Mendiolakoen aurka

Futbol partidua jokatzeko asmoa dute irailaren 8an, 1950ean jokaturakoa gogoratzu

M.A. | ARETXABALETA

Areantzan ospatzen dituzten Agorreko Andramaixetan futbol partidua jokatu dute; irailaren 8an izango dela iragarri dute auzotarrek: "Areantzarek gogoan dute, Uxerrin, 1950ean mendiolarren kontra jokatu zuten futbol partidua; hura gogoratu, aurten jaietan norgehiagoka hori errepikatuko dugu".

## 300 pezetako baloia

Mendiolako mutilak, auzoan futbol zelaia izanda, oso futbolzaleak ziren: "Askotan jokatu zuten Bolibarren, Garagartzan, Ibarren bertan ere bai", diote antolatzaileek.

Areantzan, oster, Jose Mari Madinabeitia izan zen partidua antolatu zuena: "Baloia erostekoan, Gasteiztik errekadistak ekarri zituen hiruretatik narrazioa aukeratu zuten", diote, eta gaineratu: "Barruko puxika putzu ondoren, barrura sartu eta eztenarekin lagunduta sokaz josi behar izaten zen. Korapilota kanpoaldera gelditzen zen eta jotzerakoan izugarriko zartakoa ematen zuen". 300 pezeta, garestia orduan, ordaindu zituzten

mutilen artean "eskote eginez", gaztetxoek gutxiago eta nagusienek gehiago jarrita.

Areantzako jokalaria izan ziren: Andiko Felis, gazteena, Garaiko Emeterio; Ardantzako Anastasio "baloia zer zen zekien bakarretakoa", Jose Ramon eta Patxi, atezaina; Intxaurbeko Patxi eta Antonio -gaztetan hil zen, kirolari petoa-; eta Jose Juakineneko Jose Mari -guztiaren dinamizatzailea- eta Jose Luis. Eta Mendiolakoen: Uxarteko Felipe eta Santi; Elixako Seberiano; Olaben Felix eta Isidoro; Arriolen Juan Luis; Txaren Luxiano eta Jose Mari; eta Peña-kuloko Luis.

Areantzaren eta baloiaren arteko beroaldiak bi edo hiru urte iraun zuela diote: "Partidu garrantzitsua hura izan bazen ere, lautada non, hantxe baloiari ostikoka ibiltzen ziren". Mendiolan jokatu zuten, baita Atxurdingo edo Marrukuen zelaietan ere, eta Siontzan ere bai, San Antonio egun batez: "Lagun artean jokatzeko zuten eta ardo apur bat jarri jokoan, baina azkenerako berotu, irabazi egin gura izaten zen-eta" diote.

DATUA  
**75.000**

EURO

Iazko Andramaixetako aurrekontuarekin alderatuta %16 inguruko murrizketa izan du.

ESANAK

"Gazte ekimenarekin elkarlanean jardun dugu"

Z.QUINTANILLA | KULTURA ZINEGOTZIA



PELI BELTRAN DE HEREDIA

## "Bizirik gaudela" aldarrikapena

Eguaztenean, uztailak 25, "Nafarroako erresumaren zorigaitzoko 500. urteurrena gogorazi eta oraindik bizirik gaudela" aldarrikatuta zuten Nafarroa Bizirik ekimeneko kideek herritarrekin batera. Plazako ikurrina kendu -egun baterako- eta Nafarroako bandera xingola beltzarekin igo zuten txalaparta eta adar doinuak lagun.

## Abuztuko bi astetan itxita egongo da liburutegia eta besteetan goizez zabalik

Abuztuaren 6tik 18ra bitartean oporrak hartuko dituzte liburutegiko arduradunek, eta itxita izango da Arkupen dagoen Udal Liburutegia. Gainerako egunetan, hau da, hilaren 1etik 3ra eta 20tik 31ra bitartean, goizetan zabalduko dute (10:00-13:00).

Arkupe kultura etxeak ere ordutegi horixe izango du abuztuan.



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak  
•  
Obra bukaerako garbiketak  
•  
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak  
•  
Kristalen garbiketak  
•  
Arropa garbiketak

Mobiliario  
**ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



Hesian taldeko Zuriñe eta Fran izango dira Eskoriatzan. | AITZORROTZ KULTURA ELKARTEA



Keu Agirretxea ere egongo da. | A.K.E.

**Musikari ugari**

Zapatuko kontzertu akustikoan Euskal Herrian erreferente diren hainbat musikari oholtza berean izango dira.

Hauen emanaldiekin gozatu ahal izango da: Arrasateko gaiteroak; Eskoriatzako bertso eskolako ikasleak; Rafa Rueda; Laurobako Iker; Keu Agirretxea Mikel Arakistanekin; Andoni, Eñaut eta Goseko Osoron ere bai; Hutsa eta Doblía; Napoka Hiria; Hesian taldeko Zuriñe eta Fran; Mara Mara taldeko Luis Vil eta Igor Arzuaga; Des-Kontrolakoak; Arrasateko Eneritz eta Maiaalen; Vendettako Pello Reparaz eta beste kide bat; eta kantaldia amaitzeko, Fermin Balentziaren emanaldia izango da Santa Marina plazan.

Iñaki Kortazar Aitzorrotz kultura elkarteko kideak herritar eta inguruko biztanle guztiak animatu nahi izan ditu emanaldira.

**Oso balorazio positiboa**

Kortazarrek orain arteko Errekan Goraren oso balorazio positiboa egin du: "Emanaldi gehienetan 150 pertsonatik gora elkartu gara, eta oso-oso pozik gaude".

Amaitzeko, eskerrak eman nahi izan dizkie kantaldian parte hartuko duten talde guztiak.

## Olazarkoekin Galiziara joateko izen-ematea

A.T. | ESKORIATZA

Olazar erretiratuen elkarteak Galiziara irteera antolatu du urriaren 1etik 7ra bitartean. Toki hauek bisitatuko dituzte, besteak beste: Coruña, Morte-Fisterrako kosta, Santiago, Pontevedra eta Sansenxo. Prezioa 290 euro izango da, bidaiaria aseguruarekin.

Bada, bidaiaria joateko dagoeneko eman daiteke izena Olazar erretiratu etxeko bulegoetan, eta horretarako aukera egongo da irailaren 13ra bitartean. Bulego ordu-tegian eman ahal izango da izena, 11:00etatik 12:30etara bitartean.

# Kontzertu akustikoa bihar Santa Marinan, Errekan Gora agurtzeko

Euskal Herrian erreferente diren musikariak oholtza berean izango dira

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako Errekan Gora azken txanpan sartu da. Uztailean hainbat kontzertu izan dira herriko toki ugarietan eta azkena bihar, zapatua, egingo da. Nafarroa

Bizirik izeneko kantaldi akustikoa egingo dute, eta, guztira, 14 talde igoko dira agertokira; bakoitzak 15 minutu inguruko emanaldia egingo du. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da Santa Marina plazan; hala ere, jaialdiari

hasiera plazan emango zaio 18:45ean. Bertan jendea batzea da helburua, eta gaiteroen laguntzarekin kalejiran joango dira Santa Marinaraino. Festari amaiera 23:00ean emango zaiola aurreikusiko dute antolatzaileek.

**NIRE USTEZ**

TXOMIN AZPITARTE



## Ispiluaren bi aldeak

E kaina oso hilabete berezia izan zen Eskoriatzan, bi ekitaldi garrantzitsu izan direlako. Hori guztia alaitasunarendako tokirik ez dagoela ematen duen tokian. Badirudi guztiak ematen dituela bueltak arazo ekonomikoaren inguruan eta batzuetan ispiluaren fikziozko aldean bizi gara, "Mirarien Lurraldean". Ispiluaren alde errealean kokatuta, hilabete honetan bi ekitaldi hauek gertatu dira.

Batetik, ekainaren 17an Olazar erretiratuen elkartearen 25. urteurrena ospatu zen. Ereserkia ere sortu zuten; Amets

Arzallusek jarri zion letra; musika, berriz, Juan Carlos Irizarrek.

Bestetik, hilaren 29an, San Pedro eguna izan zen eta herriko jaiak ospatu genituen. Horrelakoetan, gainera, garrantzitsu izaten da guztiok disfrutatzea, salbuespenik egin gabe.

Ispiluaren alde errealean, ezin ditugu ahaztu herritik urrun dauden seme-alabak. Albisteak lagun eta familiarterekin bitartez iristen zaizkie. Faltan botatzen dut herria, urtean behin behintzat, horiekin gogoratzea; izan ere, ematen du eroso sentitzen garela joko politikoaren barruan eta pentsatzen dugu instituzioen lana dela kanpoan dauden seme-alabekin oroitzea eta herriko kontuen berri ematea. Une batzuetan zaila da jakitea ispiluaren zein aldetan bizi garen. Garrantzitsuena da argi izatea zer nahi dugun eta zertarako gauden.



GAZTELEKUA

## Gaztelekuen azken festa

Joan den egubakoitzean, uda aurreko azken festa egin zuten Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztelekuko 13 eta 16 urte bitarteko neska-mutiek. Aretxo futbol txapelketa egin zuten, lau taldek hartu zuten parte eta taldeak mistoak izan ziren, neska eta mutil batera. Afaltzeko 15 lagun elkartu ziren, eta, argazkian ikusten den moduan, ogitartekoak jan zituzten. Giro aparta izan zuten eta gustura ibili ziren neska-mutiek.

## Gizarte Zerbitzuen dirulaguntzak

A.T. | ESKORIATZA

Maiatzaren 17an egindako osoko bilkuran, Gizarte Zerbitzuetan diharduten elkarrekin egindako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak hasiera batean onartzea erabaki zuten udalbatzak.

Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean eta jendarean egoteko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, oinarriok behin betikotzat jotzen dira. Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 12ra arte egongo da.

## 1962an jaiotako eskoriatzarren bazkaria irailean

1962. urtean jaiotako eskoriatzarrek bazkaria egingo dute irailaren 29an. Izena eman beharko da irailaren 19a baino lehen, kontu korrante honetan 50 euro sartuta (izena eta abizena adierazita): Kutxa 2101 0038 50 0013056452. Harremanetarako, Edorta edo Aintzanerengana jo.

**LENIZ**  
ESKORIATZA

**SUZUKI**

**KONPONKETAK:**

Txapa

Margoa

Mekanika



# Jone Larrañaga: "Urtetako jairik jendetsuena izan da aurten antzuolarrondako"

Zapatua izan zen egunik jendetsuena; autobus zerbitzua bikoiztu zuten

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Egunez zein gauez ibili da jendea jaietan. Herritarren parte-hartzea handitu egin dela esan digute udaletik eta gaztetxetik. Horren eredu dira kale afarian 200 lagun batu zirela eta zapatuko txosna guneko afarian Zurrategi bete egin zela. "Sekulako herri giroa sumatu dugu jaietan", azaldu digu Jone Larrañagak, Kultura teknikaria. Baina alardea izan da jaietako ekitaldi jendetsuena: 184 parte-hartzaile izan ditu. "Makillatzaileak, agertoki eta bestelako muntaia lanak egiten ibilitakoak... jende askok lagundu digu. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, euren laguntza barik ez dagoelako jairik", nabarmendu digu. Bi erronka nagusi zituen alardeak aurten: mairuaren sekitoan zihuan musikari taldea eta danbor-jotzaileen taldea sendotzea. Hala, aurten, adin askotariko 20 lagunek hartu dute parte danborra joaz. "Oso talde polita sortu dute".

Alarde berriaren laugarren urtea izanik, finkatuta dagoela esan digu. Izan ere, ziurtasun horrek parte-hartzaileengan eragina izan du eta konfiantza handiagoarekin irten dira. "Benetan borobil irten da; finkatuta daude aldaketak eta denek onartu dituzte, gainera, orain lau urte ekindako berrikuntzak. Eboluzioa eta aldaketa onerako izan dira". Zapatu arratsalde eta gauean ibilitako jendetzaren adierazle, Bergararik bikoiztutako autobus zerbitzua. "Oso ondo funtzionatu zuen autobus zerbitzua. Jende asko arratsaldean etorri zen eta bikoiztu egin genituen zerbitzua. Gozate-



Jone Larrañaga, Kultura teknikaria, Herriko Plazan. | MAIDER ARREGI

## ESANAK

**"Ikusgarria da larrin-dantzaren bueltan plaza beteta ikustea"**

JONE LARRAÑAGA | TEKNIKARIA

gi eta Joselu Anaiek erakarrita, Zurrategi eta Plaza beteta zeuden". Barikuko gastronomia lehiaketan, 16 taldek hartu zuen parte. Datoren urterako ere proposamena egin dute herritarrek: berriro patata-tortilla egitea, alegia. "Koadrilen Eguneko zezenek eta poneyek plaza bete zuten; Iñigo Almorzak sanferminetan baino jende gehiago zegoela zioen".

## Txosna-gunea beteta

Txosna gunean ere jendea ibili da; zapatua izan arren jendetsuena. Baina pintxopoteoak, jolasek eta elektro-txaranga zein rock kontzertuek ere erakarri dituzte antzuolarrak eta ingurukoak.

## Larrin-dantza

"Plaza jendez beteta, 3 urteko txiek nola egiten duten dantza ikustea ikaragarria da. Oinarinek antolatuta adin guztietako jendea aritu da".

Aipatu ere, Debagoieneko Txakolin Egunean, Anelkarrek egingako saiheski erreka sekulako harrera izan zuela; berehala agortu ziren eroandako 60 kiloak. Beste 6 kilo eroan behar izan zituzten. Eta aurten lehen aldiz herritarrek hala eskatuta, hontza ere igo dute kanpandorrera, jaietako behar den moduan agur esateko.

## NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI



## Herritar berriak

Danok dakigu zela, azken urteotan gehixenbat, gure herrira inguruko herrietako jendia (eta ez hain ingurukua) etorri dan bizitzera, batez be jende gaztia izan dana. Hasieran keju eiten giñan esanaz: "Joe... lo eitera besterik ez dira agertzen!", entzun zeiken kalia herritarren ahotik esanda; eta egixa da, kasu batzutan halaxe zan, baina deretxo, eskubide guztiakin be esan, ezta?

Halata be, gauzatxo bat daukat nik esateko. Gure herrixan bizi dan jende hau dana iadanik ez da guretzat jende ezezaguna, baizik eta kalia danok agurtzen gara, berriketaldixak eukitzen ditxu... eta onena: "Herriko

ekintzatan eta herrixan alde eta hoberako eitten dian aktibitatean parte hartziaz gain, ekintzak antolatzen be jardutzen dabe!" Ez da hau eskertzekua? Bertako askok baino gehixau sarri! Esaterako: ointxe pasau dan Mairuan Alardian zenbaitxek hartu dabe parte, ludotekia antolatzen be bai, komertziuak jartzan, auzotako jaixak antolatzen, eta abar, eta abar.

Azken finian herrixa aberasten, eta hau da antzuolarrak benetan nahi doguna, ezta?

Ba orduan esker onekuak izan gaitxezen eta balorau deigan gure herrixa dan Antzuola hobetzen eta aurrera iruaten laguntzen daben guztiei eta danon artian lortu deigan herri bizi eta dexente bat eukitzia!

Gora Antzuola eta antzuolarrak!

**"Danon artian lortu deigan herri bizi eta dexente bat"**



## Nafar bandera dolu-xingolaz udaletxean

Aste honetako eguaztanean, uztailearen 25ean, bete dira 500 urte Nafarroaren konkista gertatu zela. Albako dukearen tropek Iruñea okupatu zuteneko 500. urteurrena, alegia. Hala, Antzuolako Udalak martxoko osokoan onartutako mozioa aintzat hartuta, astelehenetik gaur arte udaletxeko balkoian 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimenaren ikurra eta nafar bandera dolu-xingolarekin jarrita izan dute.

## Ontzi arinen eta beiraren bilketaren tendentzia gorantz doa

Atez ateko bilketa batzordeak kaleratu ditu ekainera arteko datuak. "Tendentzia ona da, ontzi arinen eta beiraren bilketa gorantz doa-eta; errefusak behera egin du eta organikoa mantendu egin da", azaldu digu Jose Mari Iturbek. "Orain, jaien eta enpresen oporren ondorioz, ikusi beharko da zein den tendentzia".

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



MAIDER ARREGI

## Gaztetxeko atek zabalik

Inaugurazio ofiziala urrian egingo den arren, dagoeneko zabalik daude gaztetxe berriko atek. Ez hori bakarrik, abuztuan zenbait ekintzatan -frontenis txapelketan, esaterako- parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete dagoeneko. Era berean, abuztuan arratsaldeko lauretatik aurrera ere zabalik egongo da. Hala, lan-txandan parte hartzeko izena eman daiteke bertan.



Egualdi ona lagun, Otxandion 70 bat aramaioar elkartu dira asteon. | ANA MUÑOIA



Albiña da gazteen txoko gustukoena; irudia astelehenekoa da. | TXOMIN MADINA

## JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio ez du hondartzarik, baina horrek ez du esan nahi bainurako eskaintza mugatua duenik. *Aramaio tropikaleko* txoko sekretuez haratago, Otxandionko igerilekuak eta Albiñako urtegia dira aramaioarren leku gustukoena. Txikienez igerilekuetara jotzen dute eta gazteek, berriz, nahiago dute Albiña.

## Asteon, 70 lagun Otxandiora

Aramaio ume gehienak Otxandionko igerilekuetara joaten dira, baita Aramaion bizi diren Arrasateko zenbait familia ere. Kur-

# Beroa ez da arazo, urtegia edo igerilekua dago-eta

Haur gehienak Otxandionko igerilekuetara joaten dira; gazteak, berriz, Albiñara

tzeta igo eta jaitsi beharra dago, baina igerilekuek merezi dute, Ana Muñoa amaren arabera: "Otxandiora heltzeko bidea ez da eroso, baina igerilekuak oso

ondo daude. Bi igerileku ditu, txikia eta handia, eta baita etzanda egoteko leku asko ere; berdegune ederrak ditu. Gainera, oso lasaia da". Asteon egin duen

eguraldiarekin, gainera, Aramaioetik jende asko joan da. Astelehenean, adibidez, 18 bat auto irten ziren Aramaioetik; 70 lagun inguru. Gainera, Aramaio eta

Otxandionko udalek 2011ko martxoan sinatutako hitzarmenari esker, aramaioarrek Otxandionko igerilekuetarako sarrera. Hau da, helduek lau euro eta haurrek bi euro eta erdi.

Era berean, baina, Muñoak jakinarazi du gurasoen artean hainbat alditan hitz egin izan dutela Udalarari autobus zerbitzua eskatzeko: "Nor bere autoan joaten da, eta ondo legoke Udalarak autobus txiki bat jartzea uda sasoirako. Hala ere, oraindik ez dugu inongo eskaerarik egin".

## Albiña, gazteen gustuko

Ume gehienak Otxandiora, beraz. Hori bai, urte gutxi barru Albiñara joaten hasiko dira. Izan ere, gazte aramaioarren artean Albiña da bainurako leku gustukoena: "Gazteok Albiña dugu gustuko. Gidabaimena atera arte auto-stop eginez edo bizikletan joatea da ohitura. Hori bai, behin autoa izanda bat baino gehiago hondartzara joaten da", adierazi du Oier Kortabarria gazte aramaioarrek. Zikinkeriaz kezu da: "Edukiontzia errepide ondoan daude, baina jende gehien egoten den lekuetan zikinkeria askotxo piltzen da, zorritzarez".

## Santiago eguna ospatzeko 50 bat lagun elkartu ziren Gureia auzoan

## J.B. | ARAMAIO

Aurten ere giro ederrean ospatu dute Santiago eguna Aramaio Gureia auzoan. Goizean meza egin zuten Santiago ermitan, eta, mezaren ostean, bazkarirako prestaketak hasi zituzten. 14:30ak jota hasi ziren bazkaltzen: "Aurten ohi baino beranduago gabiltza", esan zigun Iñaki Larrañaga auzotarrak, mahaian bertan. Haur zein heldu, 50 bat lagun elkartu ziren ermitan, eta, eguzki-oihal baten itzalpean, giro ederrean ibili ziren.

## Aurten eguraldia lagun

Bazkalostea girotzeko arduranak Juan Mari Juaristi eta Felipe Zelaieta bertsolari gasteiztarrak izan ziren. Aurten eguraldia lagun izan dute, iaz ez bezala: Uribarriko elkartearen egin behar izan zuten bazkaria, euria egin zuelako: "Baina ohitura eta gure ilusioa da ermitan egitea", dio Larrañagak.

Jende kopuruari dagokionez, azken urteetan beherakada izan da: "Izan dira urteak 60 heldu elkartu izan garela".



Oihalaren itzalpean, giro ederrean joan zen bazkaria. | JOKIN BEREZIARTUA

## Garbiketarako pertsona bat behar da Vital Kutxan lan egiteko, goizetan ordubetez eta abuztuan zehar

Udalak lan eskaintza baten berri eman gura die aramaioarrei. Eulen enpresak garbiketarako pertsona bat behar du Aramaio Vital Kutxan lan egiteko. Abuztu osorako kontratua litzateke, astelehen, eguazten eta egubakoitzean, 08:30etik 09:30era lan egiteko. Interesatuak honako telefono zenbakira dei dezakete: 945 21 40 65 (Belen edo Olga).



ZUIAKO KOADRILA

## Gorbeialde eta Zuiak ezagutzen, bisitariei ondo gomendatzeko

Gorbeia parkearen eskaintza turistikoa hobetzeko asmoz, Gorbeialde eta Zuiako 35 bat teknikari bi eskualdeak ezagutzen aritu dira egunotan. Bisitariei gomendatzeko bertakoa ondo ezagutzea ezinbestekoa dela uste dute, eta, horregatik, irteerak egin dituzte Bizkaian zein Araban. Izan ere, ondoko herrian dagoena jakin arren, eskualdeko eskaintza teknikari askok ez dute ezagutzen, Oihana Martinez Zuiako teknikariaren arabera. Basquetour proiektuaren bidez gauzatu dira jardunaldiak.



TXATXILIPURDI ELKARTEA

## Aramaioarrek bat egin zuten Udaixerekin, paintballean

Txatxilipurdik antolatzen duen Udaixe ekimenaren barruan, Aramaio 12 eta 17 urteko zenbait gaztetxok plan borobila egin zuten hilaren 22an. Guztira, 37 lagun elkartu ziren. Goizean zehar Debako Lastur auzoan aritu ziren paintballean; jokoaren arriskuaz jabetu ostean, bi ordu pasatxo aritu ziren *borrokan*. Gero, Zumaiako hondartzara joan ziren, "bainu ederrak" hartzera. Egonaldia "nahi baino motzagoa" egin zitzaion.

## ELGETA



Udalekuetako neska-mutiko talde bat eguaztenean ur jolasak egiten. | L.Z.

## Lau asteotan 54 neska-mutikok hartu dute parte gaur amaitzen diren uztaileko udaleku irekietan

L.Z. | ELGETA

Astelehenetik barikura bitartean egunero eman dute zerbitzua uztaileko udaleku irekietan, eta 20 egunez herriko 54 neska-mutikoren topalekua izan da goizero-goizero. Txangoak, jolasak, eskulanak, batukada... askotariko ekintzak egin dituzte guztiak ere Kepa, Mireia, Oihana, Saioa eta Leire dinamizatzaileen gidaritzapean.

Gaur, barikua, emango die- te amaiera 2012ko udaleku irekiei, eta festa prestatu dute haurrek. Gurasoak ere gonbidatuta daude; 12:00etatik aurrera hasiko dute agur festa.

### Mozorrotuta

Mozorrotuta emango dute goiza udalekuetako haurrek. Txikiak eta ertainek dantzak prestatu dituzte gurasoen aurrean egiteko; handiek, berriz, atzo grabatutako bideoak erakutsiko dute.

Udalekuek, aurtengoan ere, irudi polit asko eman dituzte, eta dinamizatzaileek gurasoei ere erakutsi nahi dizkiete. Hala, 12:00etan hasiko den agur festa horretan umeen dantzak eta bideoak ikusteaz gain lau asteotan batutako argazki emanaldia ere egingo dute. Gonbita luzatuta dago.

### Oihana Kortazar | Mendi lasterkaria

## "Zumaian sentsazio oso onak izan ditut"

Lasterketa handiak jokatu dituzte abuztuan, baina denboraldia ixteko Muskiz eta Zeanuri ditu buruan

XABIER URTZELAI / L.Z. | ELGETA

28 urteko elgetar honek mendia afizioa du, ez ogibidea. Oso serio hartzen du, ordea, eta lanaren ondorio emaitzak alde ditu.

### Zelan zabilta orkatilarekin?

Aurre-denboralditik nabil arazoekin, eta pixka bat desmoralizatzen zaitu, baina gero emaitzak ikusten dituzu, eta egia da motibazioa berriz etortzen zaizula.

### Dolomitetan kale. Zumaian, aldiz, garaipena eta errekorra.

Dolomitetan gorputzaldi txarra nuen, eta desberdintzen jakin behar da zer den garrantzitsuagoa, osasuna edo lasterketa. Zumaian, aldiz, sentsazio oso onak izan ditut, eta hamar minutuan ondut errekorra.

### Ze helburu duzu aurten?

Planteamendua izan da iaz baino lasterketa gutxiago egitea, eta Skygames lasterketak jokatzeara. Esperientzia oso polita izan da.

### Eta hemendik aurrera zer?

Munduko Kopako lasterketa dut domekan Italian, eta egingo ditut gehiago sailkapenean aurrera egiteko. Espainiako Kopako azken



Oihana Kortazar. | JULIO CALLEJA

lasterketa ere hor dago. Eta badut asmoa Muskizko eta Zeanuriko lasterketak jokatzeko. Horrelako lasterketetan hasi nintzen ni.

### Zer moduz Salomon taldean?

Esperientzia berria da, eta pribilegioa da talde honetan egotea. Oso ondo tratatzen gaituzte.

### Mendi lasterketa ez da, oraingoz, kirol olinpikoa...

Ez, baina badakit saiakera batzuk egon direla. Erronka polita izango litzateke. Ez dakit denbora kontua izango den.



L.Z.

## Haurren gozamina bits festan

Bitsak hartu zuen eguaztenean Herriko Plaza. Giro aparta egin zuen, eta handiak zein txikiak, adin askotariko neska-mutikoak murgildu ziren xaboizko hodei erraldoian. Laster ziren sobran txankletak eta gainerako oinetakoak, baina ez zen inor larritu. Jolasa, orduan, desagertutako txankleta bits artean nork lehenago topatu izan zen.

hondakinak ez direla zaborra azaltzen dute, eta gaika biltzearen onurak gogorarazi.

### Konpostaren alde

Gatzagako Udalak konpostaren alde egin du eta dagoeneko jakinarazi die herritarrei bi konpostagailu handi jarriko dituztela. Era berean, baseritarrak ere konposta egitera bultzatu gura dituzte. Hain zuzen, Mankomunitatea 2005a ezkereratu dabil konpostagailuak banatzen, eta Gatzagara 18 iritsi dira.

ta hori, eta helburua da prebentzioan eta birziklatzean aurrerapausoak ematea.

Erakusketa oso bisuala da eta hiru gunek osatzen dute: batean, debagoiendarrok sortutako hondakin kopurua agertzen da; bestean, Antzuolako kopuruak azaltzen dira, lor daitekeenaren erakusgarri; eta hirugarrenean,

## Hamar urterako hitzarmena Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin

L.Z. | ELGETA

Gipuzkoako Ur Partzuergoak jarraituko du Elgetan ur zerbitzua kudeatzen. Horren truke eta epe horretan herrian 244.416 eurora arteko inbertsioak egiteko konpromisoa hartu du partzuergoak. Martitzenean egindako osoko bilkuran udalbatzak aho batez hartu zuen hitzarmena berritzeko erabakia. Oxel Erostarbe alkateak adierazi du, gainera, hitzarmen horrekin inbertsio konpromisoa lortzeaz gain ur zerbitzua bera ere merkeago ateratzen dela; zerbitzua Udalak kudeatuta baino %20 merkeago.

Udal ordezkariak, bestetik, Frankismoaren krimenen aurkako kereilari babesa emateko mozioa onartu zuten; alderdi guztiek batera aurkeztutako mozioa izan zen, eta aho batez onartu du udalbatzak.

Eta gai zerrendatik kanpo Oxel Erostarbe alkateak jakinarazi zuen Udalak osokoaren erabakiak jasotzen dituen aktak Estatuko ordezkarietara bidaltzeko agindua jaso duela idatziz. Legeak ezartzen duen betekizuna dela onartu zuen Marian Elkoro idazkariak. Elgeta ez da agindua jaso duen herri bakarra.

## LEINTZ GATZAGA

## Hondakinen gaineko erakusketa egongo da plazan gaurtik domekara

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Hondakinen prebentziorako kanpaina dabil egiten Debagoieneko Mankomunitatea herriz herri, eta gaur Gatzagara iritsiko da. Hondakinen gaineko erakusketa egongo da domekara bitartean San Migel plazan.

Dagoeneko Oñatin, Bergaran eta Arrasaten egon da erakuske-

### Ohiko ordutegia izango dute museoak eta Labidea dendak

Zabalik izango da gatz museoak abuztuan, eta bisitek ohiko ordutegia izango dute: aste bukaeretan, 12:00etan (euskaraz) eta 13:00etan (gaztelaraz); eta astegunetan, aurrez hitzordua eginda bakarrik (665 73 95 50).

Labidea denda ere zabalik izango da eta ohiko ordutegia izango du.

### Oxel Erostarbek hilaren 31n utziko du legebiltzarkide kargua

Elgetako alkate Oxel Erostarbek uztailearen 31n utziko dio legebiltzarkide izateari. Aintzane Ezenarrokekin eta Mikel Basaberekin batera martitzenean, uztaileak 24, aurkeztu zuen legebiltzarkide akta itzultzeko idatzia Gasteizen. Aralar alderdiak apirilaren 4an eskatu zien Ezenarrori, Basaberi eta Erostarberri legebiltzarkide aktak itzultzeko.

### Domekan ospatuko dituzte Santixao jaiak Goimendi auzoan

Kanpai-errepikarekin hasiko dituzte jaiak Goimendi auzoan. 11:00etan hasita trikitilariak, bertsolariak eta haur jolasak izango dituzte. Meza 13:00etan entzungo dute, eta jarraian soka-dantza egingo dute. Arratsaldean herri kirolak izango dituzte, 18:00etan, eta bolo txapelketa 18:30ean hasiko da. Erromeriarekin amaituko dute jaieguna.

### Zaintza zerbitzuan aurre-matrikula egiteko azken eguna

Urritik aurrera arratsaldeko zaintza zerbitzua martxan ipintzeko gutxienez zazpi lagunek eman behar dute izena, eta ikasturte osorako konpromisoa eskatzen zaie. Taldea osatzeko ze aukera dagoen baloratzeko Udalak aurre-matrikulazio epea zabaldu du eta gaur, barikua, amaitzen da. Interesatuak udaletxera jo behar dute.

### Udalak erabaki ditu abuztuko alkatetza ordezkapenak

Abuztua ezohiko hilabetea da, eta Elgetan ere izendatu dituzte datozen asteotarako alkatetza ordezkapenak. Udaletik jakinarazi dute uztailearen 27tik abuztuaren 12ra bitartean Ana Gillegi zinegotziak beteko dituela alkatezako eginkizunak eta abuztuaren 15etik 27ra bitartean, Iban Retolatzenak.

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi  
eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**

**TRIATLOIA**

Aritz Kortabarria | Triatleta

# "Munduko Txapelketan 'oilar' asko egongo da, puntako triatletak"

- ▶ Gasteizen egingo dute etzi Munduko Txapelketa
- ▶ Igeriketa saioko boxak Landan egongo dira

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bi egun bano ez dira geratzen Gasteizen egingo duten distantzia luzeko Munduko Triatloi Txapelketarako. Domekako hitzorduak (08:30ean hasita) munduko mailako triatleta onenak ekarriko ditu EAeko hiriburura. Besteak beste, nor baino nor gehiago ari tuko dira Eneko Llanos arabarra, Chris McCormack australiarra, Dirk Bockel alemaniarra eta James Cunnama hegoafrikarra. Eta elitekoekin lehiatuko ez bada ere, Espainiako selekzioarekin lehiatzeko txartela du Aritz Kortabarria (1978) bergararrak.

**Gaiean dago urteko helburu nagusia. Zer moduz?**

Oso ondo, gorputzaldi onean nago eta dena emateko gogoz. Kontua da mundu mailako puntako atletak egongo direla, eta horien aurrean zaila izango dela apartekorik ezer egitea. Gure kategorian ere selekzio askotako atleta onenak izango dira, australiarrak, hegoafrikarrak, portugaldarrak... eta ez ditut ezagutzen. Lehia gogorra izango da.

**Noiz lortu zenuen selekzioarekin lehiatzeko txartela?**

Duela bi urte, 2010eko Espainiako Txapelketan bigarren izan nintzen Eivissan, eta han sailkatu nintzen. Gainera, orduan Specialized etxeokoen euren materiala utzi zidaten eta domekan Gasteizen izango dira. Polita izango litzateke euren aurrean lan txu-

kuna egitea, baina bizikletako tartea ez da niretako aproposena, lauegia da. Puntako atleta indartsuek batzbesteko oso onak aterako dituzte hor, besteok denbora galduko dugu [Barre].

**Selekzioarekin lehiatzeak zer esan nahi du?**

Munduko Txapelketako sailkapen orokorrean puntuak batzeko modu bakarra da, beste aukera Openekoekin lehiatzea delako -Hor debagoiendar gehiago izango dira lehiari. Hor gainontzeko federatuek parte hartu ahal izango dute, gu

**"Gure kategoriako atleta onenak izango dira selekzioekin"**

**"Duela bi urte lortu nuen, Eivissan, proba honetan egoteko sailkatzea"**

**"Korrikako saioan ahaleginduko naiz galdutakoa erreuperatzen"**

baino orduerdi geroago-edo irten da. Egubakoitzean [gaur] batzarra dugu Gasteizko hotel batean, eta lasterketa egunerako arropa emango digute.

**Bada, kirolari olimpikoek Londre-  
ra eraman dituzten elastikoak modukoak ematen badizkizute...**

**Poligono itxura ederra eraman-  
go dugu [Barre].**

**Zelako lasterketa izango da?**

Igeriketako tartea (4 km) Landan egingo dugu, eta bertan bizikletak hartu eta bi itzuli egingo dizkiogu Landako urtegiari (120 km). Hor, haizea egon ala ez elitekoak kapaz izango dira 42 kilometro orduko batzbestekoa ateratzeko; izugarria da. Ea ni 36-37 kilometro ordura ibil naitekeen... Eta amaitzeko, korrikako lan-saioa (30 km) Gasteizko kaleetan izango da. **Oilarrak** 3,30 inguruan ibiliko dira kilometroko. Ni, berriz, korrikako saioan ahaleginduko naiz aurretik galdu dudana denbora erreuperatzen, ea indarririk geratzen zaidan. Dena ondo bidean, gutxi gorabehera sei ordu pasatxoko denbora egingo dut, hortik aurrera, emaitza txarra. **Lasterketak korritzeko urrun joan behar izatera ohituta, gozama-  
na izango da halako mailako laster-  
keta etxe ondoan izatea.**

Bai, behingoagatik lagunak eta etxeokoen animuak jaso ahal izango ditugu lasterketan zehar, eta polita da bide bazterrean jende ezaguna ikusi ahal izatea. Bes-



Aritz Kortabarria bergararra, korrikako eta bizikleta gaineko lansioan. | ARITZ KORTABARRIA



talde, egunero ez dugu halako mailako atleten ondoan lehiatzeko aukera izaten.

**Dena dela, Gasteizko lasterketak ez badu nahi moduko emaitza ematen, baduzu non atera arantz.**

Bai, abuztuan Lyon-en (Frantzia)

egingo duten ironman proban hartuko dut esku. Sasoi onean nagoela aprobeztatu nahi dut beste lasterketa hori egiteko. Irailean ez dakit Bartzelonan korrituko dudana, Espainiako Txapelketan, erabakitzeke dut

## Javier Zelaia, beterranoetan

Aritz Kortabarria ez da selekzioarekin lehiatzeko txartela daukan debagoiendar bakarra izango, Oñatiko Triatloi Taldeko Javier Zelaia 55-59 urte bitartekoan kategorian lehiatuko da-eta. Horien proba Munduko Txapelketara begirakoa izango da, eta ordu erdi geroago hasiko dute Opena. Hor edozein federatuk hartu ahal izango du esku.



Javier Zelaia. | GOIENA

**FUTBOLA**

# Reala eta Zaragoza Bergaran izango dira martitzenean

Denboraldi-aurrea prestatzeko lagunartekoa jokatu dute Agorrosinen, 19:00etan

X.U. | BERGARA

Reala talde indartsua osatzen dabil datorren denboraldiari begira. Chori Castroren fitxaketak eta Carlos Velaren itzulerak eman du zeresan handien; hala, lehenagotik dagoenarekin batera erasoan talde txuri-urdinak gaitasuna izango duela aurrera genezake. Montanierren gizonak denboraldi-aurrean murgilduta daude, eta datorren martitzenean, uztailak 31, Bergarako Agorrosin futbol zelaietan ikusi ahal izango

ditugu, Zaragoza taldearekin aurrez aurre.

San Inazio egunean jokaturako lagunarte partidua bertatik bertara ikusteko sarrerak uztailaren 30ean jarriko dituzte salgai, eta baita egunean bertan ere, goizetik. Umeek 3 euro ordaindu beharko dituzte, gazteek 5 euro, nagusiek 15 euro, eta partidua tribunan ikusi nahi dutenek 20 euro. Hala, Bergarako bazkideek 5 euroko deskontua izango dute. Bergarara etorri aurretik, Realak



Carlos Velaren itzuleraren irudia izan da udako albiste garrantzitsuetako bat. | ELMINUTO90.ES

beste hitzordu bat izango du, bihar, zapatua, Bordeleko Girondins taldearen kontra jokatu dutelako partidua, Irunen. Hala, martitzeneko Bergarako lagunartekoa denboraldi-aurreko bosga-

rrena izango da Montanierren gizonendako. Abuztu hasieran, berriz, Italiako iparraldera joango dira hamar egunez, han beste lau norgehiagoka jokatzeko. Eta handik bueltan Zubietan egingo

dituzte liga hasi aurreko lan-saio guztiak, Bartzelonaren kontra estreinatu arte.

**Sanse eta Eibar abuztuan**

Realaren eta Zaragozaren lagunarteko partidua batera, abuztuaren 18an Sanse eta Eibar etorriko dira Agorrosinera, lagunarteko beste partidua bat jokatzera.

**Uda osteko torneoak**

Bailarako ohorezko erregionaleko taldeei dagokienez, eurretak gehienek uztailko egun hauek hainbat entrenamendu saio egiteko aprobeztatu dituzte, eta abuztuko lehen hiru asteak atsedean hartu ostean lanera itzuliko dira. Azken asteburuan etorriko dira udako futbol torneoak. Bergara Hiria, esaterako, urriaren 31n jokatu dute.



hori. Gero ere egingo ditut beste lasterketa batzuk, Nafarroa aldean, Kantabrian... baina horietara lasaiago joango naiz.

**Ohituta zaude iraupen luzeko lasterketara.**

Abuztuan Lyonen egingo dudana lasterketa nire hamaseigarren ironmana izango da. Halakoak egiten hasten zarenean helburua izaten da proba amaitzea, baina gaur egun horrek ez nau motibatzen, ez da nahikoa. Postu baten bila joaten naiz, edo denbora jakin bat egitea izaten da erronka, motibatzen laguntzen didana.

**Ironmanak ez dira hasieratik topera joateko probak. Domekako lasterketari, baina, zelan hartu neurria?**

Domekako lasterketa bai izango da gehiago estutzekoa, ironmanetan gehiago neurtu behar dira indarrak, baina Gasteizen ezingo dugu askorik gorde.

## Errepide mozketa Landan

Gasteizen zein Araba osoan zenbait zirkulazio eta trafiko arazo ekiditeko, antolatzaileek egun horretan autorik ez hartzeko dei egiten dute. Dei horrek zeharka Debagoienean ere badu eragina. Izan ere, eskualde honetatik jende asko joaten da Landara jaiegunetan, eta antolatzaileek egun horretan Landarako sarbidea itxi egingo dute autoentzat. Goizean goizetik 15:00ak arte Landarako N-240 errepidea itxita egongo da.

## FUTBOLA

# 'Lutxo' Iturrinok zuzenduko du Mondra futbol taldea

X.U. | ARRASATE

Kostata, baina Mondrako zuzendaritzak lortu du datorren denboraldirako taldea zuzenduko duen entrenatzailea topatzea. Eta fitxaketa ez da nolanahikoa, Realeko eta Athleticceko jokalaririk izandako Luciano edo *Lutxo* Iturrino mutrikuarrak hartuko du eta lehenengo taldearen arduraria. Hala, Mondraren 100. urteurrena beteko den urtean klub zuri-morea hasi da ilusioa sorraziko duen proiektuaren oinarriak jartzen

### Realean eta Athleticen

Luciano Iturrino (Mutriku, 1963, azaroak 4) txuri-urdinen harrobian, Zubietan, hazitako jokalaria da. Realeko lehen taldearekin, lehen mailan, 1984-1985



Iturrino, Ipuruan. | MUNDO DEPORTIVO

denboraldian egin zuen debuta, 21 urte zituela. 1987an, Espainiako Errege Kopa irabazi zuen Realearekin, Zaragozan. Bi urte geroago, 1989an, Athleticceko fitxatu zuen eta han bi denboralditan aritu zen. 1991n, Logroñesek fitxatu zuen. Bi urte on egin zituen han. Biak

ere Lehen Mailan, eta Realera itzuli zen 1993an, baina ez zuen askorik jokatu.

Jokalaririk moduan erretiratu ostean ez zuen futbola alboratu, entrenatzaile hasi zen-eta. Realeko eta Athleticceko harrobiek zelan lan egiten duten daki, Zubietan eta Lezaman lan egingakoa da-eta. Azken urteetan, berriz, Eibar Futbol Taldeko gazteekin ibili da.

### Aurkezpena, atzo

Astearen hasieran baiezkoa eman ostean, Mondrak atzo, eguna, arratsaldean aurkeztu behar zuen entrenatzaile berria *Goiena.net*-en izango duzue aurkezpenaren berri-, eta *Lutxo*-k berak ekarriko du, baita ere, bigarren entrenatzailea.



JOKIN BEREZIARTUA

## FUTBOLA

# Monteko porra Javier Martinezendako

Javier Martinezek (Arrasate, 1953) irabazi du Xantini txirrindulari elkarteak antolatu duen Tourreko porrako lehen saria *Rozas* izenaz-. Karri-kirri dendakoa, Madrilen bizi da egun. 1993a ezkeror urtero porra bakarra egin du Martinezek eta aurtengoa bereziki jarraitu du, lehen postuetan izan delako hasieratik. Bigarren saria Txirrinka taldeak irabazi du, 7.800 euro; eta hirugarrenak (Lipi eta Moe) 3.900 euro. Laugarren sailkatutik hamargarrenera, 780 euro eraman ditu bakoitzak.

## FUTBOLA

# Beñat Arnaiz Nafarroako errege, duatloi krosean irabazi ostean

X.U. | ARRASATE

Gaztelak Nafarroako Erreinuak konkistatu zuen duela 500 urte, eta Beñat Arnaizek beste horrenbeste egin zuen *kirol mailan*-domekan, Zufiako lasterketan. Norbaitek esango du neurrigabeko aldaratzea dela. Ados. Baina azken denboraldi honetan Aretxabaletakoak aparteko markak egin ditu Nafarroan *hangoa* da Lagunak Saltoki taldea.

Ekain hasieran Arnaiz Nafarroako txapeldunorde izan zen Aritzalekuko distantzia luzeko lasterketan *taldeka* lehenak izan ziren- eta domekan Zufiako duatloi-krosean lehenengo helmugaratu zen.

### Antxintxikara bueltan

Astelehenero Goiena paperean duela aste gutxi aitortu zuen Arnaitzek aurtengo denboraldia izango dela duatloi eta triatloietan *serio* ibiliko den azkena. Gainera, Lagunak taldea utzi eta Antxintxikara itzuliko da, etxeko taldera. Beste lehentasun batzuk izan nahi ditu. Hala onartzen ez badu ere azken lau urte hauek elitean eman ditu, edo elitekoengandik oso gertu, eta lehia-gosea apur bat asetuta lasterketez maila apalagoan gozatu nahi du. Nahi hori bete-zeko bete-betean asmatuko du etxeko taldera itzulita, taldeki-baino lagun artera.



Beñat Arnaiz, helmugan. | BA.

### Quebrantahuesos

Hurrengo helburua abuztuan du, hilaren Sean Quebrantahuesosko triatloian amaitu nahi du denboraldia. Hurrengo konkista, Aragoi.



PATINAJEA

EGAÑA

## Calafateko roller lasterketan

Joan den zapatuan Kataluniako Calafat zirkuituan patinatzaileen 24 orduko Roller Tour lasterketa jokatu zen; ibarreko Oihan Bideburu eta Agustin Oianguren aramaiorak eta Jon Ander Egaña bergararra izan ziren Kataluniako beste lagun batzuekin batera taldea osatuta. Guztira, 85 taldek parte hartu zuten, eta taldeka bigarren izan ziren.

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

## UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [goiena.net/blogak/argazkiak](http://goiena.net/blogak/argazkiak)



Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



YERA SANCHEZ. 2011ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MAIERERRASTI. 2011ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



GAIZKA UNTZUETA. 2011ko hirugarren sariaren irabazlea.

### Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefona.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 2tik irailaren 14ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETAK: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en ([www.facebook.com/udakoargazkiak](http://www.facebook.com/udakoargazkiak)) eta Twitter-en ([www.twitter.com/udakoargazkiak](http://www.twitter.com/udakoargazkiak)) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

#### HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
  - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
  - **Facebook bidez**, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://www.facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitate, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

### Sariak

#### 1. saria

**Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.**

- 12 megapixel.
- HD bideo-grabazioa.
- 2,7 hazbeteko pantaila.
- AF fokatzeko sistema, 9 puntukoa.
- ISO 100-6400 sentsibilitatea.
- EF eta EF-S objektibo guztiekin bateragarria.



**2. saria:** Cantabriako bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaia-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



**Herritarren saria:** bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Deba-ko AISIA hotolean.



**Boto emalleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**KB**  
photoestudio  
[www.kbphotoestudio.com](http://www.kbphotoestudio.com)  
**Canon**

**ARRASATE BIDAIAK**

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

**aisia** HOTELES

**karibu**  
munduko zaporeak  
[karibumundukosaporeak.com](http://karibumundukosaporeak.com)

# KULTURA

**Iker Azkoitia** | Gidoilaria, zuzendaria, aktorea eta kantautorea

## "Ikusleari pentsaraztea eta zirrara eragitea lortu dugula ikustea zoragarria da niretzako"

Bilboko New York Film Academyn jaso ditu arte dramatikoko eskolak; horren ondoren, Madrilera joan eta Arte4 aktore-estudio ezagunean osatu du aktore formazioa

MAIDER ARREGI | ARETXABAETA

Iker Azkoitia gidoilaria, aktorea, zuzendaria eta kantautorea da. 24 urteko aretxabaletarraren talentua ez da oharkabea pasa eta genero indarkeria gaitzat duen *Libre* dokumentalagatik hainbat zine jaialditan aipamena egin diote; baita sariak eman ere. 16 laguneko lantaldeaz eta 700 euroekin bost egunean egin ditu grabazioak Madrilén. Egun, Madrilén bizi da Azkoitia.

**Lehen dokumentala aurkeztuta.**

*Libre* fikziozko nire lehenengo film laburra da. 700 euro bildu genituen ekoizpenaren zuzendariak, Natalia Sprengerrek, eta biok; Eden Comunicacion enpresaren laguntza ere izan genuen. Ekoizpen lan izugarria egin du Nataliak, eta argazki zuzendariaren kamerekin aurrera egin genuen.

**Bost egunean lana amaituta?**

Bost egun ikaragarriak, baina baita nekagarriak. 6 ordu lan egin ondoren, gauean 10 orduko grabazioa egin genuen; hurrengo egunean beste 6 ordu lanean, berriro grabatzera. Bi asteburu ia lo egin gabe... Hala ere, lantalde guztiak primeran lan egin zuen, euren hoberena momentu bakoitzean emanez, nahiz eta nekatuta egon.

**Genero indarkeria oso modu sutilean landu duzu. Gogorra izan da?**

Ez zait gogorra iruditu, zaila baizik. Indarkeria matxista oso gai minbera izanda, errespetu guztiarekin istoriora eta pertsonaietara modu zuzen eta errealistan hurbiltzen ahalegindu naiz. Indarkeriari buruz ikusi ditudan



Iker Azkoitia. | IKER AZKOITIA

istorio guztiak emakumearen perspektibatik azaltzen dituzte. Nahiago izan dut istorioa zergatien eta ondorioen artean eraman.

**Soinu banda ere egin duzu. Baita gidoilari, zuzendari, aktore lanak... Hori ere baloratu dute, ezta?**

Nire ustez, hori izan da gehien baloratu dutena. Nire lehen proiektu honetan lau lan ezberdin aurrera eramaten ahalegintzeak asko harritu eta aldi berean gustatu egin zaie zinemaldietako epaimahaiei. Prozesu guztiaren parte izanez, izugarri hazi eta ikasi dut proiektu honekin.

**Zein sari jaso dituzu?**

Hiru laguneren artean egin dugun distribuzio lan astunaren ondoren, bi sari jaso ditugu: beste ehun bat proiekturen artean, guretzako izan da sari nagusia XII. CMU Santa Maria de Europa lehiaketan; eta sari finalista Euskal Film Laburren IV. Huhezinema Lehiaketan. Poztasun handia izan da nire herriko kultura etxean sari bat jasotzea. Film laburra beste sei zinemaldietako sekzio ofizialetan izan da hautatua eta Zinevascoren IV. Mostran eta Clermont-Ferrand film laburren nazioarteko merkatuan ere hartu du parte *Libre*-k.

**Ze sentsazio dituzu?**

Sentsazio ugari izan ditut urte honetan. Sekulako lana dauka proiektu bat zutik jartzeak; 16 pertsona eta tresna guztiak biltzea, dena antolatu eta helburu berezantz zuzentzea, musikaren komposizioa eta grabazioa, post-produkzio eta distribuzio lanak, webgunea egitea... Sekulako lana eginda, gauzarik ederrena jendearen erantzuna jasotzea izan da. Ikusleari pentsaraztea eta zirrara sartzea lortu dugula ikustea zoragarria da. Ahalegin guztiak guztiz balio dute.

**Moebius Films sortu zenuen.**

Moebius Films nire lagun eta baita aktore-zuzendari Marta Arrabal eta Natalia Sprenger-ekin sortu genuen iaz. Ikus-entzunezko sektorean lan egiteko aukerak hain zailak direla ikusita, guk geuk sortzea erabaki genuen. Gure antzerkia eta ikus-entzunezko lanak aurrera eramateko gogor lan egiten hasi ginen.

**"Prozesu guztiaren parte izanik, izugarri hazi eta ikasi dut proiektu honekin"**

**"Internet zuzena, merkea eta pertsonala den komunikabidea da"**

**"Aktore gisa jaso dut formazioa, baina ez diot ezeri aterik itxiko"**

**Gidoigilea, zuzendaria, aktorea eta kantautorea... nondik ateratzen duzu denbora denerako?**

Buruhaustea dirudi! Jendeak esaten dit zerbait hautatu behar izango dudala... Hainbeste gauzarekin aurrera joatea ezinezkoa dela; denboragatik. Oraindik ez diet sinetsi nahi. Ni guztiz zoriontsua naiz istorioak edo pertsonaiak sortzen, edozein espresio bide erabiltzen. Hala edo hala egin daiteke; zergatik nik neure burua mugatu?

**Zein da talentu berrien egoera?**

Ezagutzen dugun kulturarentzako, denbora eta egoera guztiz txarra bizi izaten ari gara. Baina positiboki begira diezaiokegu etorkizunari. Sektorea politikopoliki aldatzen eta berritzen ari da. Internet komunikabide zuzen, merke eta pertsonala da, nire ustez; ikusleak benetan nahi duena erraz kontsumitzeko primerako aukera dauka. Horregatik, talentu berriok aukera asko lor ditzakegu, ekoizpen, distribuzio eta kontsumo era berriei gogor eusten badiegu.

**Zein arlotan, diziplinatan sentitzen zara erosoen?**

Aktore moduan jaso dut formazioa, Bilbon eta Madrilén. Aktore sentitzen naiz eta antzezle profesional gisa lan bila nabil. Musika barruan daramat, egunero kantari nabil, baina musikatik bizi izatea ez da nire helburua. Gidoilari eta zuzendari lanak eginda asko gozatu dudan arren, aktore lana nahiago dut. Hala ere, ez dut ate bakar bat ere itxiko, denerako nago-eta prest!



Libre dokumentala. | FLORIANREY.COM



Azkoitia, *Libre* dokumental sarituaren grabazio-uneetan. | IKER AZKOITIA



# Ondo ondo ibili eta batez ere ON EGIN!!!



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA  
Tel.: 943 25 06 77

### Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE  
943 53 32 72  
[www.errekajatetxea.eu](http://www.errekajatetxea.eu)

### Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO  
945 44 53 85 / 685 72 15 93  
[iturrietasagardotegia.blogspot.com](http://iturrietasagardotegia.blogspot.com)

### Eskaintza

- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabalak. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE  
943 79 22 15  
[www.larrinetxe.com](http://www.larrinetxe.com)

### Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita.



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA  
Tel.: 943 76 10 55 / [www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)

### Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria  
Mas Gastronomía 2009.



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE  
943 79 49 39  
[www.santaanamondragon.com](http://www.santaanamondragon.com)

### Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



## La Jodedera taldearen Karibeko erritmoak bihar

M.A. | OÑATI

Kubako eta Euskal Herriko musika tradizioek bat egiten dute La Jodedera taldean. 2010eko maiatzean sortu zuten erritmoz beteriko taldea.

Laukote euskal-kubatarrak Kubako doinuak eskaintzen ditu, euskaraz, edota euskal abestiak Karibeko erritmoan.

Bihar, zapatua, arratsaldean ibiliko dira Oñatiko herriko kaleetan barrena jendea giro karibearean murgiltzen eta kale giroa animatzen, arratsaldeko seietatik aurrera, esandako moduan, erdiguneko kaleetan barrena.

## 'Ametsetan bizi' antzezlan gaur Oñatiko plazan

M.A. | OÑATI

Trapu Zaharra antzerki taldearen lana izango da ikusgai gaur, 19:00etan hasita. Aspaldiko bi aktoreen istorioa da, egungo egoera dela-eta kalera atera behar dutenak euren promozioaren bila eta, batez ere, euren lana zabalduko duen ordezkari baten bila. Horretarako, errepertorio zabala erakutsiko dute: urtebetetze ospakizunak, ezkontzearen festak, karaokea... Elkarren arteko erlazio zaila da, biak mundu desberdinetatik datozelako.

## Abuztuko oporrei ongietorri jaia egingo diete Antton tabernan

Oñatiko Antton tabernak abuztuaren 5erako prestatu du oporren ongietorri jaia. Bertan, sagardo kupela, musika, kontzertuak... giro paregabea egongo da oporrei hasiera emateko. Kontzertuak 19:00etan; besteak beste, Azkai-ter Pelox eta Transistores 50 taldeen eskutik.



Los Mighty Calacas laukote mexikarra. | BERUMUGA

## Entxilada berdearen saltsa eta koipe mexikar umoretsua Berumuga borobilduz

Abuztuaren 2an eskainiko dute kontzertua Los Mighty Calacas mexikarrek; Aire Ahizpak, ordea, abuztuaren 23an izango dira Espoioan, 22:00etan

MAIDER ARREGI | BERGARA

Berumuga musika zikloa azken txanpan sartu da. Hala, abuztuaren bi emanaldirekin gozatzeko aukera izango da Espoioan.

Lehenak Los Mighty Calacas mexikarrak izango dira. Grabatu berri duten *Desde México!* diskoa

aurkeztera datoz Bergarara. Blues, tropical soul, funk, cumbia, surf eta groove doinuen erritmora dantza egiteko aukera aparta izango da datorren egunean, abuztuaren 2an, 22:00etan hasita. Marcos Coll –harmonika–, Emiliano Juarez –gitarra–, Fernando Ruvel

–baxua eta ahotsa– eta Zoar Mirandak –bateria– osatzen dute %100 mexikarra den taldea. Adar jotzea eta festa gustuko du laukoteak agertokian. Entxilada berdearen saltsarik eta koipe mexikar umoretsurik ez da falta izango, beraz.



IRATI GOITIA

## Aupa Quartet-ekin jazz giroan

Giro intimoan, astelehenean, Aupa Quartet taldeak kontzertua eskaini zuen hiru haize-instrumenturekin. Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko klaustroa bete egin zen. Jendea jazz erritmoan murgilduta oso gustura; Bartzelonako taldeak txalo zaparradak ere jaso zituen tarteka. Taldekideek oso toki polita zela nabarmendu zuten eta oñatiarrek harrera ezin hobea egin ziotela gaineratu zuten.



BEÑAT GANBOA

## Ganboa txapeldun Arroa Behean

Arroa Beheko (Zestoa) Trikitilari Gazteen IV. Txapelketa irabazi dute Beñat Ganboa trikitilari aretxabaletarrak eta Julene Otegi pandero-jotzaile mungiarak. Uztailearen 15ean Karmen jaien barruan jokatu zuten txapelketa eta sei bikoteren artean onena izan zen Ganboa eta Otegi bikote gaztea. Gainera, dagoeneko hainbat sari eskuratu ditu Ganboak.

## UZTAILEKO SARIEN IRABAZLEAK

### IZENADUBA BASOA parke tematikorako sarrerak

- Itxaro Artola Lizarralde (Arrasate)
- Amaia Bikuña Mtz De Zuatzu (Oñati)
- Miguel Angel Freire Urteaga (Oñati)
- Resu Lasagabaster Beitia (Aretxabaleta)
- Espe Lizarralde Gallastegi (Arrasate)
- Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)

- Xabier Mugartza Aiausti (Oñati)
- Juncal Perez Lizarralde (Arrasate)
- Eneritz Urbietia Atxa (Bergara)
- Elixabete Uriarte Markaide (Arrasate)
- M. Itziar Usandizaga Galarraga (Bergara)
- Alberto Trojaola Larrea (Aretxabaleta)

### Nairobitarra Jokua

- Eider Arzelus Garai (Antzuola)

### Henry Bengoa inventarium DVDa

- Unai Gisasola Unamuno (Bergara)

### Goikobalu abesbatzaren DVDa

- Jabier Uribetxebarria Bolinaga (Arrasate)

### Gerrako ipuinak liburua eta DVDa

- Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)

### Koolore kamisetak eta izerdi-jertsea

- Itsaso Uribeetxebarria Madinabeitia (Aretxabaleta)
- Arantza Muruamendiaraz Zubikua (Bergara)
- Iban Roa Perez (Arrasate)
- Loreto Anduaga (Aretxabaleta)

goienakluba<sup>™</sup>  
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba<sup>™</sup> 2012  
Tel.: 943 25 05 05  
e-posta: kluba@goiena.com  
goienakluba.com  
Urteko kuota: 50 €.

Zorionak guztioi eta bueltararte!!

Beñat Abasolo | Matematika lehiaketan saritua

# "Betidanik gustatu izan zait matematika, baina ez nintzateke matematikaria izango"

Beñat Abasolo, etxeko terrazan, lehiaketako azterketarekin.

**MAIALEN REGUEIRO | ARETXABALETA**  
Beñat Abasolo (1998) aretxabaletarak DBHko bigarren maila amaitu du. Ikasturtea amaitu aurretik, matematika lehiaketa batean hartu zuen parte eta Gipuzkoa mailan hamargarren saritua izan zen.

**Lehen aldia da matematiken lehiaketa batera aurkezten zarena?**

Bai. Lehen aldia da horrelako lehiaketa batera aurkezten naizena.

**Nork bultzatu zintuen lehiaketa honetan parte hartzeraz?**

Egun batean, irakasleak lehiaketa honen berri eman zigun, eta lehen lauren saria oso ona zela iruditu zitzaidan eta parte hartzea pentsatu nuen, parte hartzeagatik ere ez nuen-eta ezer galtzen.

**Ikasgelako guztiek hartu zenuten parte?**

Ez. Irakasleak ikasgelako guztiak animatu zituen, baina nire ikasgelatik bostek eman genuen izena, eta lehiaketa bik bakarrik egin genuen.

**Nolako lehiaketa da?**

Lehiaketa horretara joan aurretik, gure ikastetxean matematikako azterketa bat egin genuen, eta, azterketa horren arabera, Donostiako azterketa joan zitezkeen. Nire ikasgelatik bostek egin genuen ikastetxean azterketa eta Donostiako lehiaketara bi bakarrik joan ginen. Donostiara Gipuzkoa osoko 99 ikastetxetako ikasleak joan ginen. Donostian azterketa egin genuen. Lau ariketako azterketa izan zen eta bi ordu eman zizkiguten hura egiteko. Azterketak logikako bi ariketa eta bi buruketa zituen.

**Zer izan zen lehiaketako errazena eta zailena?**

Egia esan, azterketako lehenengo ariketa nahiko erraza zen, logikakoa baitzen. Zailena, aldiz, hirugarrena egin zitzaidan. Buruketa luze bat zen eta lursail bateko zati baten neurria kalkulatu behar zen emandako datuak kontuan hartuta.

**Zein izan zen saria?**

Bi sari eman zizkidaten hamargarren sailkatua izateagatik. Alde batetik, diploma bat; eta beste alde batetik, Elkar liburu-dendan gastatzeko 50 euro. Saria Gasteizen eman ziguten.

**Nola sentitu zinen saritua izanda?**

Lehiaketa hau egiteko izena eman nuenean ez nuen pentsatzen ezer

irabazteko aukera izango nuenik, baina badaezpada izena eman nuen. Ikastetxera deitu zuten eta niri ikastetxetik deitu zidaten hamargarren sailkatua izan nintzela esateko. Ez nuen espero, baina albistea pozik hartu nuen.

**Matematika gustuko duzu? Zergatik?**

Egia esan, matematika beste edozein irakasgai baino gehiago gustatzen zait, eta ez dakit zein den arrazoia. Dakidana da betidanik gustatu izan zaidala; agian, horregatik izan daiteke.

**Zaila egiten zaizu matematika?**

Ez. Normalean beti atera ditut nota onak matematikan, eta gustatzen zaidan gauza bat denez, ez zait zaila egiten.

**Zer da matematiketatik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?**

Egia esan, ariketak egitea gustatzen zait. Izan ere, teoriako azalpenak ez zaizkit gustatzen.

**Matematikako ikasketak egingo zenituzke? Zergatik?**

Ez. Egia esan, ez nuke matematikari izan gura. Nahiago nuke beste ikasketaren bat egin.

**Zergatik gorroto du jendeak matematika?**

Jende askok irakasgai bat delako gorroto du matematika. Ikasle batzuek, gainera, nota txarrak ateratzen dituzte, eta, hori delako, ikasgai hori gorroto izaten dute.

**Matematikako beste lehiaketaren batean parte hartzeko asmorik?**

Oraingoz, ez dut horretan pentsatu, baina, aukera ematen badidate, agian, hartuko nuke parte.

**Animatuko zenuke jendea lehiaketa honetan parte hartzeraz? Zergatik?**

Ba, bai. Nik neuk ere ez nuen espero saririk irabaztea, eta izena eman nuen. Horrenbestez, jendea parte hartzeraz animatuko nuke; izan ere, izena emateagatik ez da ezer galtzen.

## PERTSONALA

**Zure herriko txokorik maiteena:** Urkulu.

**Euskal Herriko txokorik gustukoena:** Zarautz.

**Gorroto duzuna:** Euria.

**Kantu gustukoena:** Oi!

**Bidaiatzeko leku bat:** L' Escala.


**Ametz bat:** Musika talde on bat edukitzea.

**Musika talde bat:** Nealita Fola.

**Pelikula bat:** *Los amos del Dagtown.*

**Janari bat:** Pizza.

**Udarako plana:** Deskantsatu eta lagunekin jaietan ibili.





**HILDAKOAK**

**Asuncion Mendizabal Aldanondo.** Oñatin, uztailearen 11n. 90 urte.  
**Antonio Alvarez Rodriguez.** Arrasaten, uztailearen 12an. 55 urte.  
**Amaia Arrieta Agirrebeña.** Bergaran, uztailearen 14an. 79 urte.  
**Puri Urizar Villar.** Oñatin, uztailearen 15ean. 51 urte.  
**Teresa Molinero Hernangomez.** Arrasaten, uztailearen 16an. 94 urte.  
**Angel Fernandez Sierra.** Aretxabaletan, uztailearen 17an. 66 urte.  
**Jesus Rodriguez Martiño.** Bergaran, uztailearen 17an. 66 urte.  
**M. Natividad Zabaleta Kortabarria.** Oñatin, uztailearen 17an. 90 urte.  
**Angel Rafael Askasibar Montezubi.** Arrasaten, uztailearen 19an. 73 urte.  
**Juan Etzezarreta Otaegi.** Oñatin, uztailearen 22an. 87 urte.  
**Rafael Aiastui Guridi.** Oñatin, uztailearen 22an. 46 urte.  
**Elvira Garbizo Schild.** Arrasaten, uztailearen 22an. 70 urte.  
**Lucila Lentijo San Jose.** Arrasaten, uztailearen 23an. 63 urte.  
**Jesus Diez Gonzalez.** Arrasaten, uztailearen 23an. 41 urte.  
**Iñaki Irazola Gastañaga.** Arrasaten, uztailearen 25ean. 45 urte.

**ASTEA GOIENAN**

**GOIENA TELEBISTA**

EGUBAKOITZA 27	ZAPATUA 28	DOMEKA 29	ASTELEHENA 30	MARTITZENA 31	EGUAZTENA 01	EGUENA 02
12:20 Planik bai?	10:00 Ipupomamua	10:00 Ipupomamua	09:45 Kantari	09:45 Kantari	09:45 Kantari	09:45 Kantari
12:40 Magazinea	10:30 Zorion Agurrak	10:30 Erreportajea:	10:45 Berriak	10:45 Berriak	10:45 Berriak	10:45 Berriak
13:25 Zorion Agurrak	10:35 28 Klip	Zarauzko Triatloloa	11:10 Goierrri Creation Cent	11:10 Taula gainean	11:10 Ekogune	11:10 Bizitegia
13:30 Walker	11:00 Planik bai?	11:13 Zorion Agurrak	11:45 Harira	11:39 Erreportajea	11:40 Jaiak: Bergarako	11:40 Walker
13:57 Onein	11:20 AsteON	11:18 Onein	12:15 Bizitegia	12:09 Laino arteko plana	Pazkoak	12:10 Nere herrie
14:18 Beranduegi.tv	11:55 Bizitegia	11:50 Magazinea	12:45 Berriak	12:44 Berriak	12:15 Bizitegia	12:33 Musikaz Gain
14:38 Zorion Agurrak	12:25 28 Kanalak 5 urte	12:50 Bizitegia	13:10 Onein	13:28 Goierrri Creation Cent	13:04 Onein	12:43 Berriak
14:43 Berriak	12:57 Onein	13:20 Berriak	13:38 AsteON	14:03 Ekogune	13:10 Onein	13:08 Onein
15:03 Eguraldia	13:19 Berriak	13:35 Onein	14:13 Erreportajea	14:33 Musikaz Gain	13:30 Erreportajea:	13:29 Erreportajea:
15:06 Planik bai?	13:34 Magazinea	13:56 Erreportajea:	14:43 Berriak	14:43 Berriak	Zarauzko Triatloloa	Zarauzko Triatloloa.
15:26 Bizitegia	14:34 Azoka 5.0	Ehunmilak	15:08 Onein	15:08 Onein	14:10 Nere herrie	14:09 Jaiak: Bergarako
15:56 Ikusmira	15:17 Harira	15:24 Zorion Agurrak	15:36 Laino arteko plana	15:36 Jaiak: Bergarako	14:33 Erreportajea	jaiak
16:24 Zorion Agurrak	15:49 Planik bai?	15:29 Berriak	16:11 Jaiak: Bergarako	16:11 Ekogune	14:50 Berriak	14:44 Berriak
16:58 Berriak	16:09 Zorion Agurrak	15:44 AsteON	Pazkoak	16:44 Berriak	15:15 Goierrri Creation Cent	15:09 Onein
17:18 Eguraldia	16:14 Berriak	16:19 Berriak	16:46 Berriak	17:09 Kantari	15:48 Taula gainean	15:29 Ekogune
17:21 Planik bai?	16:29 Onein	16:34 Magazinea	17:11 Ekogune	17:39 Kantari	16:15 Laino arteko plana	16:01 Erreportajea
17:41 28 Klip	17:01 AsteON	17:34 Harira	17:41 Erreportajea	18:09 Nere herrie	16:45 Berriak	16:26 Erreportajea
18:06 Harira	17:36 Magazinea	18:06 Beranduegi.tv	18:06 Bizitegia	18:32 Bizitegia	17:10 Kantari	16:43 Berriak
18:39 Eusko pelota txap.	18:36 Laino arteko plana	19:26 Zorion Agurrak	18:39 Berriak	18:57 Berriak	17:40 Kantari	17:08 Kantari
19:51 Beranduegi.tv	19:06 Zorion Agurrak	19:31 Taula gainean	19:04 Tobera	19:22 Erreportajea	18:10 Onein	17:43 Kantari
20:11 Berriak	19:11 Berriak	20:00 Magazinea	herri-antzerkia	19:47 Erreportajea:	18:34 Ekogune	18:13 Taula gainean
20:31 Eguraldia	19:26 Beranduegi.tv	21:00 JazzBer	20:42 Musikaz Gain	Zarauzko Triatloloa	19:04 Berriak	18:42 Berriak
20:34 Planik bai?	19:46 Magazinea	22:22 Berriak	20:52 Berriak	20:27 Erreportajea	19:29 Euskeraren	19:07 Erreportajea
20:54 Harira	20:46 Planik bai?	22:37 28 Kanalak 5 urte	21:17 Ekogune	20:44 Berriak	espektak	19:37 Bizitegia
21:27 Berriak	21:06 Taula gainean	23:07 Beranduegi.tv	21:47 Harira	21:09 Bizitegia	20:45 Berriak	20:07 Ekogune
21:47 Eguraldia	22:07 AsteON	23:27 Magazinea	22:17 AsteON	21:39 Laino arteko plana	21:10 Erreportajea	20:37 Musikaz Gain
21:50 Musikaz Gain	22:42 Planik bai?		22:47 Berriak	22:09 Erreportajea	21:35 Laino arteko plana	20:47 Berriak
22:01 AsteON	23:02 JazzBer		23:07 Walker	22:29 Musikaz Gain	22:10 Ekogune	21:12 Tobera herri-antzerk
22:36 Berriak			23:37 Nere herrie	22:39 Berriak	22:45 Berriak	22:50 Berriak
22:56 Eguraldia				23:04 Musikaz Gain	22:45 Walker	23:15 Goierrri Creation Cent
22:59 Planik bai?				23:14 Ekogune	23:10 Bizitegia	23:50 Laino arteko plana
23:19 AsteON					23:40 Musikaz Gain	00:15 Jaiak: Bergarako
23:54 JazzBer					00:20 Laino arteko plana	Pazkoak
00:24 Magazinea						

**OROIGARRIA**



**Iñaki Irazola Gastañaga**



*Oriaki haizetara zabal  
 Susterrak lurrera tinko  
 Lagun zure kerizpean  
 Biziko gare betiko.  
 Aupa Barri*

Zure lagunak.  
 Arrasaten, 2012ko uztailearen 27an.

**OROIGARRIA**

**Iñaki Irazola Gastañaga**

Arizmendi Ikastolako gurasoa



Arrasaten hil zen 2012ko uztailearen 25ean, 45 urte zituela.

*Une zail eta gogor hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.*



Arizmendi Ikastolako guraso eta langileak.  
 Leintz bailaran, 2012ko uztailearen 27an.

**OROIGARRIA**

**Iñaki Irazola Gastañaga**



Arrasaten hil zen 2012ko uztailearen 25ean, 45 urte zituela.

Zure lagunak.



Amillena Aire Kirol Taldie.  
 Arrasaten, 2012ko uztailearen 27an.

**MEZA**

**Asuncion Mendizabal Aldanondo**

Julian Zelaiaren alarguna



2012ko uztailearen 11n hil zen, 90 urte zituela.

Ondra meza zapatuan, uztailearen 28an, 19:30ean,  
 Oñatiko Agustindarren elizan esango da.

*Zerua ondo merezita zenezukan  
 eta han egongo zara lasai-lasai  
 guri begira.*

Joango zaretenoi aldezk eskerrik asko sendikoen izenean.

**OROIGARRIA**



**Iñaki Irazola Gastañaga**



Arrasaten hil zen 2012ko uztailearen 25ean, 45 urte zituela.

*Aitatxo maitia, egon zaitez lasai  
 eta pozik zauzen tokian.  
 Zugandik jaso dugun maitasuna  
 eta bizipoza gure bihotzetan  
 gelditzen da betirako.  
 Gero arte Iñaki, gero arte aitatxo maitia*

Atzen, Nahia eta Maider.  
 Arrasaten, 2012ko uztailearen 27an.

**OROIGARRIA**

**Iñaki Irazola Gastañaga**



Atzen Mungia lankidearen senarra

Arrasaten hil zen 2012ko uztailearen 25ean, 45 urte zituela.

*Bat egiten dugu familiaren saminarekin.*



Zenbakiko lankideak.  
 Arrasaten, 2012ko uztailearen 27an.

**ESKER ONA**

**Puri Urizar Villar**



2012ko uztailearen 15ean hil zen, 51 urte zituela.

Hileta elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,  
 eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan, uztailearen 28an, 19:30ean,  
 Oñatiko Agustindarren elizan esango da.

Oñatin, 2012ko uztailearen 27an.

**Babeslea:**



Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
 Etengabeko zerbitzua  
 Lore koroak  
 Eskelak  
 Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
 e-posta: euskalduna@harrespil.net

**OROIGARRIA**

**Iñaki Irazola Gastañaga**



Nahia Irazola konpartsakidearen aita

Arrasaten hil zen 2012ko uztailearen 25ean, 45 urte zituela.

*Izar berri bat piztutzero zoaz Euskal Herriko zeru gainean.*



Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa.  
 Arrasaten, 2012ko uztailearen 27an.

**ESKER ONA**



**Nati Zabaleta Kortabarria**



Joxemari Lizarralde Larragañaren alarguna

2012ko uztailearen 17an hil zen, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,  
 eskerrik asko sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan, uztailearen 28an, 19:30ean,  
 Oñatiko Agustindarren elizan esango da.

Oñatin, 2012ko uztailearen 27an.



### Gemma eta Ramon

Gemma Orobengoa eta Ramon Alonso abuztuaren 11n ezkonduko dira. "Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik; bereziki, Norak, Elsak eta Anerrek bidaliak. Ea eguna laster heltzen den eta merezi duzuen egun polita izaten dugun. Besarkada bat".



### Izaskun eta Mikel

Izaskun Rodriguez eta Mikel Arakistain bihar, uztailak 28, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. "Zorionak eta ondo pasatu Kuban! Egun zoriontsua izatea opa dizuegu! Besarkada eta muxu handi bat, etxeko partetik eta Bergarako koadrilaren partetik".



### Alex eta Amaia

Alex Fernandez eta Amaia Iturrospe uztailaren 28an Ezkion ezkonduko dira. "Egun zoragarria pasatzea espero dugu. Zorionak, koadrilako eta familiaren partetik. Eta ez hartu hotzik Kanada eta Alaska aldean!".



### Itxaso eta Luis

Itxaso Etxeberria eta Luis Rey arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira, 12:30ean, udaletxean. "Heldu da eguna! Oso zoriontsuak izatea espero dugu! Eder to pasatu Australian eta ea hiru etortzen zareten! Familiaren, lagunaren eta denon partetik, zorionak, bikote!".




### Lorena eta Roberto

Begarako Lorena eta Logroñoko Roberto uztailaren 28an Navarreten ezkonduko dira. "Zorionak eta egun zoragarria pasa dezazuela! Musu handi bat, familiaren partetik".



### Eneko eta Maia

Eneko eta Maia zapatuan, uztailaren 28an, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. "Koadrilako partetik, ondo pasatu eguna eta ondoren egingo duzuen eztei-bidaia. Zoriontsu izan, bikote!".



### Ibon eta Ainara

Arrasateko Ibon eta Aretxabaletako Ainara uztailaren 28an ezkonduko dira Mendiolako San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean Etxeberri jatetxean ospatuko dute eta Australia eta Balira joango dira eztei-bidaian. "Zorionak, bikote, eta zoriontsu izan zaitezte zuzen familiaren eta koadrilako partetik!".



### Iker eta Laura

Iker Beitia eta Laura Ferreira zapatuan ezkonduko dira Eskoriatzan. Zelai-Zabalen ospatuko dute lagunekin eta familiarekin batera. "Egun oso ederra pasatu eta bidaiaz asko gozatu. Gurasoen, anaien, lehen-gusuen eta aita-ama pontekoaren eta baita zuen Arbiñosteko lagunaren partetik ere".



### Ruben eta Amaia

Ruben Horrillo arrasatearra eta Amaia Zallo eibartarra egubakoitzean, hilaren 27an, ezkonduko dira Arrasateko epaitegian. "Zorionak eta patxo handi bat, gurasoen, anai-arreben eta amamen partetik, bikote!".



### Antonio eta Idoia

Eskoriatzako Antonio Cuesta eta Bilboko Idoia Gomez uztailaren 27an ezkonduko ziren, Etxebarriko elizan. "Zuzen familiaren partetik, zorionak! Egun zoragarria pasatu genuen!".



### Nahikari eta Iker

Nahikari eta Iker uztailaren 28an ezkonduko dira, Urretxuko udaletxean. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu eztei-bidaian! Arrasateko lagunak".



### Jonatan eta Inma

Jonatan Atxa eta Inma Delgado uztailaren 28an ezkonduko dira. "Zorionak eta ondo ospatu, familiako eta bien koadrilako partetik".

#### URTEURRENA

### Susana Ugarte Ugarte



2011ko uztailaren 23an hil zen, 97 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, uztailaren 28an, 19:00etan,  
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian esango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

#### 10. URTEURRENA

### Nerea Martin Urzelai



*Bizitza aurrera doa,  
bidea apaintzen duten arantzadun lorek  
zu dakarzikigute gogora.  
Arantzek gurekin ez zaudela diote,  
larrosek ordea zure esentzia dakarte,  
zure irribarre zabal eta distiratsua.  
Gurekin betiko.*

Zure lagunak.  
Aretxabaletan, 2012ko uztailaren 27an.

#### URTEURRENA

### Luisa Alberdi

1929-07-18 — 2011-07-13

### Rufina Zubierremeria

1916-07-19 — 2011-06-06



Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 29an,  
11:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan esango da.

Beti gogoan izango zaituztegu.

Bertaratuko zaretenoi aldeztatik eskerrik asko.

**OÑATI Duruko eguna**

Duruko eguna ospatuko da etzi, bi urtean behin legez. Inguru haietako zazpi artzainen ardi-gazta dastatzea egongo da, baita herri kirolak, bertsolariak, trikitilariak, eta abar. Aurten, gainera, 10. urteurrena izanik, bezperan ere egongo da zertaz gozatu. Etzi, 11:00etan hasiko da dena, meza nagusiarekin. Etzi, Durun, 11:00etan.



ARANTXA BERMEJO



GOIENA

**ARRASATE 'Up!!'**

Ikus-entzule guztientzat eta eszena-gune guztietarako egin-dako zirku ikuskizuna da Xabi Larrearen eskutik datorren *Up!!*. Umorea eta antzerkia dituen ikuskizuna gaur izango duzue ikusteko aukera, Arrasateko plazan.

Gaur, herriko plazan, 20:00etan.

**MUSIKA****ARRASATE DJ Sinner eta DJ Screamer**

Gaueko hamabietatik aurrera Dat tabernan DJ Sinner ta DJ Screamer disko jartzaileek musika ipiniko dute.

Bihar, Dat tabernan, 00:00etan

**OÑATI La Jodedera taldea**

Kubako eta Euskal Herriko musika tradizioek bat egiten dute La Jodedera taldean. 2010eko maiatzean sortu zen. Laukote euskal-kubatarrak Kubako doinuak eskaintzen ditu euskaraz edota euskal abestiak Karibeko erritmoan. Arratsaldean ibiliko dira herriko kaleetan zehar.

Bihar, herriko kaleetan 18:00etan.

**ARRASATE Screammers & Sinners taldearen lehen kontzertua**

Screammers & Sinners Psychobilly taldearen estreinaldia izango da Iluntzen zapatuan eskainiko duten kontzertua. Taldekideak eskarmentu handia dute musika munduan, punk eta rock estiloetan bereziki. Kontzertuaren ostean DJ saioa egongo da Dat tabernan.

Bihar, zapatua, Iluntz eta Dat tabernetan 22:30ean.

**BERGARA Los Mighty Calacas**

Los Mighty Calacas talde mexikarraren tropical soul doinuak entzuteko aukera egongo da datorren egunean Bergaran.

Abuztuaren 2an, eguena, Espoioian, 22:00etan.

**BERGARA Aire Aizpak taldearen kontzertua**

Berumuga egitasmoaren barruan Aire Aizpak taldearen kontzertua egongo da Espoioian.

Abuztuaren 23an, eguena, 22:00etan

**JAIK****BERGARA ELGETA Goimendi auzoko jaiak**

11:00etan hasiko dira jaiak, kanpai-errepikarekin. Ondoren, salda banatuko da, umeendako jolasak egongo dira, eta baita bertsolariak ere. Meza, soka-dantza eta trikitilariak ere izango dira, baita herri kirolak eta bolo jokoa ere. Etzi, Goimendi auzoan, 11:00etan.

**NON-ZER**

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

UZTAILA 27  
ABUZTUA 27

**ARETXABALETA Andramaixak**

Abuztuaren 14an hasiko dira Aretxabaletan Andramaixak eta hilaren 17ra arte iraungo dute. Tarte horretan ez dira faltako ekitaldiak; hala nola, antzeztan eta akrobaziak, edota musik.

Abuztuaren 14tik 17ra, Aretxabaletan.

ongi-etorria jai antolatu du. Bertan, sagardo kupela, musika, kontzertuak eta giro paregabea egongo da. Kontzertuak arratsaldeko zazpietan hasiko dira. Azkater Pelox, Behibi Blues eta beste batzuk arituko dira tabernan.

Abuztuaren 5ean, domeka, Antton tabernan, 19:00etan.

**KANPAZAR San Inazio eguna Kanpanzarren**

Urtero bezala, San Inazio eguna ospatuko dute aurten ere Kanpanzarren. Arrasateko eta Elorrioko jendeaz gain, Angiozarrekoak ere izango dira. Mugarrie-

tara bisita egin ondoren, Doke txapelketa jokatu dute urtero bezala, Arrasateko eta Elorrioko udaletako ordezkariak. Egun osoko jai izango da honakoa. Uztailaren 31n, Kanpanzarren.

**OÑATI Lizargarate eguna**

Aurreko Mendiko Lizargarate auzoan Lizargarate eguna ospatuko dute abuztuaren 26an. Egun horretan eta egun osoan zehar trikitia, hamarretakoa, herri kirolak, bazkaria, erromeria, eta abar egingo dira. Bazkarirako txartelak Urbia eta Umerez tabernetan daude salgai.

Abuztuaren 26an, Lizargaraten, 10:00etan.

**OSPAKIZUNAK****OÑATI Oporrei ongi-etorri jaiak Antton tabernan**

Udako oporrak datozela eta Oñatiko Antton tabernak Oporrei



GOIENA

**ESKORIATZA Nafarroako kantaldia**

*Nafarroa bizirik* kantaldi akustikoa izango da asteburuko beste ekintzako bat eta Euskal Herriko erreferente diren musikariak oholtza

berean izango dira bihar Eskoriatzan: Lauroba, Hesian eta Des-kontrol taldeetako kide batzuk izango dira, besteak beste.

Bihar, Santa Marinan, 19:00etan.

**ERAKUSKETAK****BERGARA Carlos Baudilloren erakusketa**

Carlos Baudilloren erakusketa ikusgai egongo da Aroztegi aretoan abuztuaren zehar. Orduetgia honakoa izango da: astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Abuztuaren 3a, egubakoitza, 12:00etan.

**IRTEERA****ELGETA Intxortako guda gunera bisita gidatua**

Bisita gidatuak igandero izaten dira maiatzetik uztailean. Gutxienez 12 laguneko taldeen zako bisita gidatuak... beste edozein egunetan bisitak antolaten dira, baina aurrez erreserba egitea beharrezkoa da.

Etzi, Espaloian, 10:00etan.

**OÑATI Espeleoabentura irteera Arrikruzen**

Ohiko pasarelatik irtenda, Arrikruzeko galeria aktiboa eta ezentrika ikusten dira irteera honetan. Hilabetean behin egiten da ohiko pasarelatik kanpoko ibilaldi hau eta abuztuaren, hilaren 18an egingo da. Informazioa eta izenematea, 943 08 20 00 telefonoan.

Abuztuaren 18an, zapatua, Arrikruzen, 10:00etan.

**ZINEMA****ARRASATE 'Urte berri on amona!!'**

Telmo Esnalen *Urte berri on amona!!* filma eskainiko dute gaur Monterronen.

Gaur, Monterron parkean, 22:30etan.

**ARRASATE 'Intocable'**

Abuztuaren 3an, aldiz, *Intocable* filma eskainiko dute.

Abuztuaren 3a, egubakoitza Monterron parkea 22:30etan

**ARRASATE Cowboys & Aliens**

*Cowboys & Aliens* filmaren emanaldia.

Abuztuaren 10a, egubakoitza, Monterron parkean 22:30ean.



GOIENA

**OÑATI San Inazio eguna Urbian**

San Inazio eguna herri mugetan asko ospatzen den jaia da. Eta inguruotan agian ezagunena nahiz eta ez izan bakarra–Urbian ospatzen dena da. Etzi izango da hori; meza nagusia–ren ostean, musikarik eta jairik ez da falta izango, Urbian. Etzi, Urbian, egun osoan zehar.

**ARRASATE 'Capitán américa'**

*Capitán America* filma eskainiko dute abuztuaren 17an Abuztuaren 17a, egubakoitza, Monreron parkean, 22:30ean.

**ARRASATE 'Aita zombia naiz'**

Film hori eskainiko dute abuztuko azken emanaldian. Abuztuaren 24ean, egubakoitza, Monreron parkean 22:30ean.

**BESTELAKOAK****BERGARA Umorezko bakarriketa**

Mizpirualdeko boluntarioendako

umorezko bakarriketa saioa egingo dute gaur Bergarako gaztetxean.

Gaur, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

**DEIA****ARRASATE 'losu egoera larrian' Manifestazioa**

Josu Uribetxeberria preso arrasatearraren egoeraren berri eman eta gaixorik dauden presoek etxean egon behar dutela aldarrikatzeko manifestazioa egingo da gaur.

Gaur, Herriko plazan, 19:30ean.



TRAPU ZAHARRA

**OÑATI 'Ametsetan bizi'**

Trapu Zaharra antzerki taldearen lana da Klean egitarauaren barruan gaur ikusi ahal izango den *Ametsetan bizi* antzezlan. Lan horrek krisia dela eta promozionatzera kalera atera behar izan duten aspaldiko bi aktoreen istorioa kontatzen du. Gaur, plazan, 19:00etan.

**ZINEMA****GASTEIZ****GURIDI****Salzburgo jaialdiko La Bohème opera**

Eguaztenean: 19:30

**Madagascar 3**

Egubakoitzetik martitzenera: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30. Eguaztenean: 17:00 Eguenetan: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Tengo ganas de ti**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Que esperar cuando estas esperando**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Las nieves del Kilimanjaro**

Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:30.

**Impavido**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Tengo ganas de ti**

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**The amazing Spiderman**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**El profesor Lazhar**

Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:30.

**El dictador**

Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**El caballero oscuro**

Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:30.

**FLORIDA****Madagascar 3**

Egubakoitzetik eguenera: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30. Zapatutan, baita: 12:00.

**Moonrise Kingdom**

Egubakoitzetik eguenera: 12:00, 17:45, 20:00. Zapatutan, baita: 12:00

**Margaret**

Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**La delicadeza**

Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:30.

**Elefante blanco**

Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:30.

**Ice Age 4**

Egubakoitzetik eguenera: 12:00, 17:45, 20:00. Zapatutan, baita: 12:00.

**Los nombres del amor**

Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**El Skylab**

Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

**El Irlandes**

Egubakoitzetik eguenera: 12:00, 18:00, 20:15, 22:30. Zapatutan, baita: 12:00.

**GORBEIA****Madagascar**

Egunero: 18:30, 20:30, 22:30. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:30. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 16:30.

**El caballero oscuro**

Egunero: 17:15, 18:45, 20:30. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 23:45. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 15:30.

**El dictador**

Egunero: 18:15, 20:00, 21:45. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 23:30. **3D - The amazing Spiderman** Egunero: 18:30, 21:15. **The amazing**

**Spiderman**

Egunero: 19:40, 22:25.

**3D - Ice Age 4**

Egunero: 17:40. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 15:40.

**Ice Age 4**

Egunero: 18:15, 20:15, 22:15. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:15. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 16:15.

**Tengo ganas de ti**

Egunero: 20:00, 22:30.

**El pacto**

Egunero: 20:15, 22:30. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:45.

**Blancanieves y la leyenda del cazador**

Egunero: 17:30.

**Que esperar cuando estas esperando**

Egunero: 17:50.

**Intocable**

Egubakoitzetik etapatutan: 00:00. Zapatu, domeka eta jaiegunesan: 16:15.

**Project X**

Zapatu, domeka eta jaiegunesan: 15:45.

**El enigma del cuervo**

Zapatu, domeka eta jaiegunesan: 15:30.

**Men in black**

Zapatu, domeka eta jaiegunesan: 16:00.

**BOULEVARD****Madagascar**

Egunero: 17:30, 19:30, 21:30. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 23:30. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 15:30.

**3D - Madagascar 3**

Egunero: 18:30, 20:30, 22:30. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:30. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 16:30.

**El caballero oscuro**

Egunero: 15:30, 18:45, 22:00. Egubakoitzetik, zapatu eta domekan: 17:00, 20:15, 23:30. Zapatutik eguenera: 17:30, 20:45.

**3D - Ice Age 4**

Egunero: 17:45. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 15:45.

**Ice Age 4**

Egunero: 18:15, 20:15. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 16:15.

**The amazing Spiderman**

Egunero: 19:30, 22:15. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 17:30.

Egunero: 18:20, 20:20, 22:20. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:20. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 16:20.

**El dictador**

Egunero: 18:00, 20:00, 22:20. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:20. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 16:20.

**Que esperar cuando estas esperando**

Egunero: 18:00, 20:15, 22:30. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:45. Zapatu, domeka eta jaiegunesan, baita: 15:45.

**Elefante blanco**

Egunero: 17:30.

**Blancanieves y la leyenda del cazador**

Egunero: 22:00. Egubakoitzetik etapatutan, baita: 00:30.

**Tengo ganas de ti**

Egunero: 19:30, 22:00.

**Lobos el Arga**

Zapatu, domeka eta jaiegunesan: 15:30.

**Intocable**

Zapatu, domeka eta jaiegunesan: 15:30.

**KRITIKA****EL CABALLERO OSCURO: LA LEYENDA RENACE ★★☆☆☆**

Zuzendaria: Christopher Nolan.

Herraldea: Estatu Batuak.

Urtea: 2012.

Aktoreak: Christian Bale, Anne Hathaway, Tom Hardy.

Iraupena: 165 minutu.

**Arnasik gabeko istorioa**

**E**l *caballero oscuro: la leyenda renace* filmean, onerako eta txarrerako, Christopher Nolanen lanen ezaugarriak mantentzen dira. Nolanek, baliabide izugarriak trebetasunez erabiliz, bere zigilua uzten du. Filmatzeko oso zailak diren eszena ugari daude. Eszena horiek detaile guztiak zainduta daude filmatuta. Halako filmen jarraitzaileek gozatuko dute Batmanen azkeneko estreinaldiarekin.

Alde horretatik, Nolanen proposamena erakargarria izan daiteke, baina, tamalez, zuzendariaren hain onak ez diren beste ezaugarriak ere agertzen dira: Nolanen filmak nahiko nahasiak izaten dira;

pertsonaia ugari azaltzen dira, azpi-istorio gehiegi eta askotan beharrezkoak ez diren datuetan denbora dezente galtzen da. Zuzendariak film handiak egin nahi ditu eta ahalegin horretan kasu batzuetan handikerian erortzen da. Ikuslea liluratu nahi du eta hori lortu beharrean ikuslea gogaitzea lortzen du. Horixe gertatzen da Batmanen hirugarren film honetan. Zuzendariak ez dio uzten istorioari arnasik hartzen. Adibidez bigarren filmean zuzendaria harian mugitzen bazen ere, lortzen zuen istorioari atmosfera kaltegarri bat ematea eta pertsonaia eta istorioa hobeto landuak zeuden. Horrela, ikusgarritasuna tentsioa eta

sakontasuna modu egokian batzen ziren. Azkeneko honetan, bigarren filmeko pausoak jarraitzen badira ere eta orokorrean bere egitura antzekoa bada ere, emaitza desorekatuagoa eta nahasiagoa da. Istorio berri honetan lehenagoko bi filmetan gertatutako ekintzak eta pertsonaia bere pisua izango dute. Dena den, filmaren eskema ia betikoa da: gaizkile bat agertzen da hiria arriskuan jartzen eta Batmanek horri aurre egin beharko dio, dituen arazo moralak eta pertsonalak gaindituz. Txarrena da dramatikoki ez dela gauza handirik gertatzen.

ANTONIO ZABALA



# goiena

2012-07-27

BUKATZEKO

## Bere txikitasunean, paretetan handi

- ▶ 12 urte bete berri ditu eta Espainiako Txapelketan lehenengo postua lortu du bergararrak
- ▶ Txikitatik eskalatu izan du, baina urtebete besterik ez darama entrenatzen Mikel Linazisorok

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Mitx bezala ezagutzen dute Araotz inguruan. 12 urte besterik ez du, baina adina bikoizten dioten eskalataileek ere errespetuz agurtzen dute. Ez da gutxiagorako. Urtebete da entrenatzen hasi zela, eta paretetan zintzilik urteak daramatzatenek egiten ez dutena erraz egitera iritsi da. Eskalada munduko hedabide asko dagoeneko begira ditu Mikel Linazisoro bergararrak, eta "haur prodijio" hitzez lagunduta joaten da haren izena gehienetan. 5.10 eta Ternua marka ezagunak ere konturatu dira gaztetxoaren abilezia.

### Taldeko beste bat gehiago

Paretan gora dabilen bitartean, inguruko eskalataileak, ezinbestez, begira izaten ditu; ikusgarria da gora egiteko daukan erraztasuna. Begirada horiek, baina, ez diote askorik axola. Araozko eskalataile koadrilako beste bat gehiago da eta batekin eta bestearekin hizketan eta txantxetan ibiltzen da, oso mutiko bizia baita.

Normala den moduan, oraindik gazteegia da egiten duenaren meritua baloratzeko, baina badauki egiten duena berezia eta oso



Mikel Linazisoro, Araozko paretetan gora. | ANDER MONEDERO

zaila dela. Irribarre lotsati batekin kontatu digu urtebetean lortu duena: "Txikitatik eskalatu izan dut, baina duela urtebete hasi nintzen entrenatzen. Hasieran sei graduko paretetan hasi nintzen eta orain 8-A gradukoak

egiten ditut". Eskaladaz gutxi dakitenendako, haren entrenatzaile Joxean Mulasek argitzen du 8-A graduko paretak oso maila handikoak direla eta eskalataile askok urteak behar izaten dituztela maila hori lortzeko.



Mikel Linazisoro, 3 urterekin. | A.M.

### Espainiako txapelduna

Entrenatzen urtebete daraman arren, txapel garrantzitsuak jantzi ditu dagoeneko. 16 urtez azpiko Espainiako Eskalada Txapelketa eta Espainiako Kopa irabazi ditu, eta, bietan, lor zitekeen puntuazio handiena lortu du.

Eta zelan da posible lortu duena lortzea?: "Abilezia fisikoez gain, oso azkarra delako, eta burua argi duelako beti. Ondo eskalatzeko ezinbestekoa da burua ondo erabiltzea!", dio Mulasek.

Bere bizitzako paretak igotzen hasi besterik ez da egin, baina tontorra oso goian izango da seguru.

### AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



### Oporretako itzulera

Ez naiz oporretara joan aurretik itzulerarekin pentsatzen jartzen den horietakoa. Egunean egunekoa disfrutatzea gustatzen zait eta are gehiago oporretan.

Oraingoan, ordea, itzuleran izango dugun egoerak kezkatzen nau. Egingo dugu bi-hiru-lau asteko parentesia; nahia go nuke luzeagoa izatea eta zer esanik ez datorriguna ikusita. Estatu Españolean egoera ekonomikoa muturrekoa da eta okerrera doa. Erreskatea ate joka dugu urduri, murrizketa gehiago ezarriko dizkigute, estatuko antolaketa politikoa aldatzera joko dute. Estatu Españolak behea joko du eta azpian harrapatuko gaitu. Irtenbidea bakarra da: Euskal Herria bere buruaren jabe egitea. Alferrikoak dira erdibideak. Estatu Españolean ez dugu etorkizunik.

Akordio zabala erdietsi behar dugu burujabetzaren bidean urrats eraginkorrak egiteko. Eta honek guztion konpromisoa eskatzen du: alderdiana, sindikatua, eragile soziala, herritarrena... Irailaren 26rako greba deialdia dugu. Jar dezagun greba akordio zabal horren bidean lehen mugarri gisa.

Ondo-ondo pasa oporrak eta ekin diezaiozun burujabetzaren bideari lehenbait lehen; ahal dela gaurdanik. Bestela itzuli bezain pronto.

## Lirain Estetika, abuztuan ere zabalik

Lirainen, zure beharretara egokitzeko, urte osoan ditugu gure ateak zabalik

### Abuztuko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera 09:00 - 18:30  
Larunbatak 09:00 - 13:00

Bixente Ferrer, 1 Arrasate Tel.: 943 79 52 17 www.lirainestetika.com

LIRAIN  
ESTETIKA-ZENTRUA

